

Duintasuna aldarri

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak greba orokorra deitu du ostegunerako / 2-4



Bost ikasletik lau D ereduan ari dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn estreinakoz / 6

Ziordiko komentua zena erosteko aukera du hura erabiltzen ari den Amarauna elkarteak / 10

Binakakoan Ezkurdiak eta Martijak Jaka eta Zabaleta dituzte arerio bihar / 17

Iñigo Zabalok Irlandako Saskibaloiko Kopako finala jokatuko du bihar Dublinen / 23

'Hari izpia hartzen' euskal kulturari buruz gogoeta egiteko jardunaldia, gaur, Iruñean / 21

Ainhoa Juaniz, Zirika Zirkus: "Mezu sozialak subliminalki sartzen ditugu ikuskizunetan" / 23

GRADUATUTAKO BETAURREKOETAN

2x1

% 50 ECUZKITAKO BETAURREKOETAN

Sakanaoptika
optikaria - audiorikua - hurbilekopia

Intxostia etorbidea 10
31800 Altsasu
948 563 124
www.optikasakana.com



Sakanako greba orokorreko batzordeko kideak osteguneko deialdiko kartelak eskutan dituztela. UTZITAKOIA

Prekarizazioari mugak jartzeko

Lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko greba orokorra deitu dute Euskal Herriko Eskubide Sozialen kartak eta euskal gehiengo sindikalak heldu den ostegunerako

SAKANA
Pentsio duinen aldeko mugimenduak bere aldarrikapena kalera atera zuela bi urte bete ziren duela bi aste. Mugimenduak berak pentsioen eremuaz aparte, modu zabalagoan "planto" egiteko beharra plazaratu zuen, euren aldarrietatik harago joateko asmoz. Eta hor bat egin zuten ELA, LAB, STEILAS, ESK, HIRU, Etxalde eta EHNE sindikatuek. Azken horiek eta hainbat gizarte eragilek herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten duela sei urte.

Kartaren sustatzaileen eta pentsio duinen aldeko mugimenduen konfluentziaz sortu da hilaren 30eko greba orokorrerako deialdia, "lan baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko mobilizazio dinamika". Deialdiarekin bat egin du ere CNT sindikatuak.

Batzuen zein besteen iritziz, "egoera ikusita beharrezkoa iruditzen zaigu jauzi bat emate lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan. Konbentzimendu hirukoitz batek

batu gaitu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira".

Greba deitu dutenen iritziz, "bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez". Eraiki beharreko eredu horren ardatz nagusiak ere zehaztuak dituzte: aberastasunaren birbanaketa,

sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendar-tearen beharren arabera antolatua (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Greba batzordeak

Lan, pentsio eta bizitza duina aldarrikatuko dute ostegunean eta mezua zabaltzeko Sakanan sei greba batzorde sortu dira: Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Etxarri Aranatzen, Bakaikun eta Altsasun. Gainera, 50 langiletik gorako dozena bat lantegietako enpresa batzordeek babesa eman diote grebari.

Greba batzordeetako ordezkariak azaldu dutenez, "ostegunean, feministok, gazteok, langileok, pentsionistok, nekazariok, tabernariok, dendari txikiak hitzordua dugu bizitzeko, lan egiteko eta erretiroa hartzeko dugun eskubidearekin". Batzordeetatik mobilizazio eguneko aldarrikapenetako batzuk gogorarazi dituzte: "2011ko lan erreforma eta 2013ko pentsioen erreforma (67 urtera arte lan egitea) bertan behera uztea, prekarietatearekin eta soldata arrakalarekin bukatzeko neurriak ezartzea (1200 eta 1080 euroko gutxieneko soldata eta pentsioa, 35 orduko lan astea...).

Gogorarazi dutenez, "2008an abiatu zen krisiak eta bertatik ateratzeko, kapitalak aberastasuna metatzen jarrai zezan hartutako erabaki neoliberalak prekarietatea hedatu dute gurean, kontratuetan, behin behinekotasuna da nagusi, lanaldi partzialak emakumezkoendako dira, zaintza lanak emakumezkoek bere gain hartzen dutelako eta sektore prekarizatuetan lan egiten dutelako, soldatek eros ahalmena galdu dute, egungo pentsioen bideragarritasuna prekarietateak jartzen du auzitan..."

Horregatik, "kapitalaren aurrean bizitza da handiena, eta bizitzaren alde egiten dugu. Burujabetzaz, Euskal Herrian erabaki propioak hartzen joate-

ko garaia da, burujabetzaz al-daketa soziala eraikitzeke garaia da". Horregatik, greba orokorreko egunean herrietan antolatutako deialdietan parte hartzera deitu dute batzordeetatik, bereziki, 18:00etan Altsasun eginen den manifestazioan.

Atxikimenduak

Sindikatuak jakinarazi dutenez, greba orokorrarekin Nafarroako 150 enpresa baino gehiagotako langileen ordezkariak bat egiten dute. "Nafarroan ehunka

Greba eguneko mobilizazioak

- **Goizean goizetik**
Piketeak herri eta poligonoetan.
- **09:30** Altsasun, manifestazioa, Eroskitik abiatuta.
- **10:00** Irurtzunen giza katea, San Martin eta Bi Ahizpe kaleetan.
- **10:00** Etxarri Aranatzen manifestazioa, plazatik abiatuta.
- **10:00** Bakaikun, kontzentrazioa eta hamaiketako, erdiko iturrian.
- **10:30** Lakuntzan pankartak egitera, plazan.
- **10:30** Arbizun kontzentrazioa, plazan.
- **12:00** Iruñean manifestazioa, Gaztelu plazan.
- **16:30** Etxarri Aranatzen, kafea plazan, ondoren auto-karabana Altsasura manifestaziora.
- **16:30** Bakaikun, kafea erdiko iturrian, ondoren auto-karabana Altsasura manifestaziora joateko.
- **18:00** Altsasun manifestazioa, BMko aparkalekutik.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

langile atxikitzen ari dira hilaren 30ean eginen dugun greba orokorrera. Langileak 30ean kalera aterako direla argi esaten ari dira enpresa batzordeetan onartzen ari diren mozioetan".

Euskal gehiengo sindikaleko ordezkariak azaldu zuten, "sindikatu batzuek mobilizazioari uko egitea eskatzen digute. Guk aldiz ez nahikoak eta partzialak diren neurriak ez ditugu onartzen. Inoiz ez diogulako uko egingo gurea denari, gure eskubideei". Deialdiarekin "oinarrizko" eskaerak eginen dituztela gaztigatu zuten: 1.200 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko lanaldia, soldata arrakalarekin bukatzea eta subrogazioa azpikontratetan aldarrikapen justuak dira, oinarrizkoak. Beraz, greba orokorrarekin bat egin duten sindikatuendako, "unea egokia da mobilizazioaren bidez gure aldarrikapenak errealitate bilatzeko. Denon artean lor dezakegu!"

Greba deitzaileen iritziz, "gehiengo sozialaren alde gobernatzeko unea da. Egun onartuak ditugun eskubideak langileok urteetan aurrera eramandako borrokei esker lortu dira. Borrokarako grina hori baldin badugu gurea dena lor dezakegu". Horregatik guztiatik langile nafarrei ilbeltzaren 30ean greba egitera eta mobilizazioetan parte hartzera deitu dituzte.

Grebarekin bat egin duten Sakanako enpresen aretan daude IAT, Electricidad Ramos, Magotteaux, Iberica de Suspensiones, Industrial Barranquesa, Aceros Moldeados de Lakuntza, Andra Mari Ikastola, Guema, Iñigo Aritza Ikastola, Lakuntza Calor Group, eta Neumaticos Iruña. Baita Ernai, IA, Gazte Asanbladak, Bilgune feminista, Altsasuko Feministak, Sasoia, Pentsionistak Martxan, Otsailaren 22ko Plataforma, Ospa, Sakana Trenaren Alde...EH Bilduk gaztigatu duenez, "unea heldu da prekarietatean oinarritutako sistema bati erantzuteko eta, bizi-baldintzak erdiguneari jarritz".

**GREBA EGUNEAN
SARE SOZIALETAN BI
TRAOLA IZANEN DIRA:
#GREBAOROKORRA2020
#U30GREBAOROKORRA**



Sakanako mugimendu feministako ordezkariak grebarako deia egiten. UTZITAKOIA

Besoko moreak jantzita, greba orokorrera!

Sakanako mugimendu feministak hilaren 30erako deituta dagoen greba orokorrarekin bat egin du: "azken bi urteetan martxoaren 8ko greba egunetan mugimendu feministak egindako indar erakustaldia errepikatu dezagun"

SAKANA

"Emakume feministok ere lan guztiak utziko ditugu eta kaleak hartuko ditugu. Grebarako hamaika arrazoi ditugulako". Hala adierazi dio Sakanako mugimendu feministak Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta gehiengo sindikalak hilaren 30erako deitutako greba orokorrari. Sakanako mugimendu feministak "prekarietatearekin bukatu eta bizitzak erdiguneari jarri nahi ditugula aldarrikatuko dugu, zaintza-lanak kolektibizatu nahi ditugula errebinkatuko dugu, indarkeria matxistatik gabeko bizitzak nahi ditugula ozen eskatuko dugu".

Horregatik, Sakanako mugimendu feministak aldarrikapen zehatzak kaleratuko ditu hilaren 30ean. Batetik, etxeko-lanak eta zaintza lanak duintzea, eta gainerako enpleguetan dauden eskubide berberak aitortzea. Bestetik, eskatuko dute zerbitzu publikoak garatzea, eta sektore horretan ezarritako murrizketak

indargabetzea. Aldi berean, bereziki emakumezkoen ezartzen zaizkien aldi baterako lanaldi inposatuak ezabatzea eskatuko dute. Horrekin batera, feministek exijituko dute gizonezkoen eta emakumezkoen arteko soldata- eta pentsio-arrakalekin bukatzea. Gainera, mendekotasun-egoeran dauden pertsona guztiei laguntza-zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa legez bermatzea nahi dute. Azkenik, lan arloan dagoen soldata-arrakalaren, diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren kontrako legea onartzea eskatuko dute.

Datuak

Sakanako feministek adierazi dutenez, "arazoaren muinetako bat sistemak ezarritako sexuaren arabera lan-banaketa da, hau da, inposatutako genero-rolen arabera zereginen banaketa. Ondorioz, historikoki emakumeok emakumeok zaintza eta erreproduzio lanez arduratu gara eta, gizonak, berriz, lan

produktiboez. Banaketa horrek, gure lan egoera eta lan baldintzak guztiz baldintzatzen ditu, eta ondorioz gure bizitza".

Horien adierazle diren hainbat datu eman dituzte Sakanako mugimendu feministatik: Sakanako industrializatutako jarduerata % 77koa da, baina emakumezkoena % 31 besterik ez eta, bestetik, Sakanako emakumezkoen langabezia-tasa (% 14) Nafarroako altuenetakoa da. Feministek gaineratu dutenez, lan merkatuan genero-segregazioa dago. "Sakanan, industrian, batez ere gizonezkoak ari dira lanean, emakumeok nagusiki zerbitzuen sektorean egiten dugu lan (ostalaritza, merkataritza, zaintza-lanak...). Lan horietan dagoen prekarizazioa oso handia da (lanaldi luzeak, soldata baxuak...). Neska gaztea izanez gero lan baldintzak okertzen direla gaineratu dute: "askok kontraturik gabe tabernetan lan egitea, klase partikularretan, dendetan, haurrak zaintzen..."

Hego Euskal Herriko emakumezkoen errealitatearen argazkia ere azaldu dute: kontraturik gabe lanean ari diren pertsonen % 74 emakumezkoak dira; aldi baterako kontratuak dituztenen % 28 dira; lanaldi murriztua dituzten % 76 dira emakumezkoak, Altsasun % 86; emakumezkoek urtean gizonzkoak baino % 25 gutxiago kobratzen du batzate bestea; emakumezkoen erretiro-pentsioa gizonzkoena baino baxuagoa da (Nafarroan 2015ean gizonena emakumezkoena baino % 70 handiagoa zen); pentsiodun emakumezkoen lan-merkatuan arautuan sartzea ukatzen zaie, eta sartzen direnean zaintzalanari lotuta baliaitu dituzten baimen eta lan-murrizketak guztiz baldintzatuko diete erretiroa eta hainbat emakume Gizarte Segurantzaren erregimenetik kanpo eta oinarrizko lan-erregimenei bermerik gabe ari da lanean, etxeko langileak, esaterako.

Mugimendu feministako kideen iritziz, "azken urteetan emakumeok soldatapeko lanetan hasi gara, baina horrek ez du berrantolaketara sozioekonomikorik ekarri. Zaintza-lanek gizonen eta emakumeen artean modu erantzunkidean antolatuta gabe segitzen dute". Lan-merkatuan ere emakumezkoek indarkeria matxista pairatzen dutela gaineratu dute, emakumezkoen hainbat askatasun urratzen direla gaineratuz.

"Etorkizun iluna bertan"

Gazte asanbaldek bat egin dute osteguneko grebarekin eta haren aurretik, euren jarrera adierazteko manifestazioa deitu dute Altsasun, gaur, 19:00etan. Azaldu dutenez, gazteek gaur egun urte luzez ikasten aritu beharra dute, ordaindu gabeko praktikak dituzte, miseriazko soldatak eskuratzen dituzte, kontraturik gabe lan egiten dute askotan, lanpostu prekarioetan aritzen dira edo ezin dira emantzipatu. Antolatzea eta borrokatzea deitu dute.



Irurtzunen 1.080 euroko pentsioa aldarrikatu zuten asteartean.

Pentsiodunek greba orokorrarekin bat egin dute

Greba "keinu solidariorat" hartu dute; "baldintzarik gabeko laguntza eskaintzeko konpromisoa hartu dugu"

SAKANA

Sasoiak, Nafarroako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak, eta Sakanako Pentsiodun, Jubilatuen eta Adinekoen Koordinakundeak greba orokorrarekin bat egin dute. Bi erakundeetako bozeramaileek gogorarazi dutenez, "azken bi urteetan milaka eta milaka jubilatuen izan gara, Euskal Herrian batez ere, hiri eta herri askotako kale eta plaza-gure aldarrikapenak defendatzen ibili garenak, baina ez da aski". Pentsio duinen aldeko mugimenduko ordezkariak onartu dute "gizartearen parte-hartzea beharrezkoa" dela. Eta horrela ulertu dute gurekin harremanetan jarri diren Euskal Herriko eragile sozial eta sindikal gehienak, eta greba orokorra deitu dute ostegunerako.

Deialdiaren zergatiak ere gogorarazi dituzte: "pentsio publikoaren bideragarritasuna, hein

handi batean, lan-politikaren menpe dagoela". Horren adierazle lirateke lan munduan dauden prekarietatea, soldata txikiak, kotizazioak eta beste. Heldu den asteko greba orokorrean Europako Gutun Sozialak exijitzen dituen helburuak aldarrikatuko direla nabarmendu dute pentsiodunen mugimendutik: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, 1.200 euroko gutxieneko soldata, 2010eko eta 2012ko lan erreformak ezabatzea, 2011ko eta 2013ko pentsio erreformak indargabetzea, Kontsumo Prezioen Indizearen igoera erreala eta genero arteko soldaten eta pentsioen arrakalarekin bukatzea.

Sasoiak eta Sakanako Koordinakundeko kideek gaineratu dutenez, "batasuna gure indarra da, eta mobilizazioa eta borroka, gure helburuak lortzeko berme bakarra".

CCOO: "grebak pentsiodunen mugimendua hondatzen du"

"Deialdi partzial hau zentzugabea da, gainera testuingurutik kanpo pentsioen balioa igotzean"

SAKANA

CCOOk ez du babestuko greba. "Milaka pertsonak kaleetan oinarritutako aldarrikapena hondatzen saiatzen dira". CCOOtik nabarmendu dutenez, "pentsiodunen mugimenduaren hasieratik parte hartzen duela, ekin-tza-batasunaren alde lan eginez eta horretarako orduak eskainiz, beti ere, gizarte-oinarri zabala eta plurala biltzeko eta mobilizatzeko gai den pentsiodunen mugimendu bat antolatzeari lehentasuna emanez". Gaineratuz: "ELAk, LABek eta gainerako deitzaileek arriskuan jartzen dute erakundearen eta kalearen arteko batasuna. Dirudienek, sindikatu horiendako garrantzitsuagoa da nazio-nortasuna, muga fisikoak, bandera, gizarte-erakundeak baino". CCOOkoen iritziz "ELAk eta LABek gizarte-emari hori gutxiesten dute, pentsio duinen aldeko eskaria modu baztertzailan eta ez oso erabilgarrian protagonizatu nahian".

CCOOk esan dutenez, "31tik aurrera, pentsioen aldeko mugimenduaren nortasun-ezaugarriak berreskuratzeko lan egingo dugu, haren aniztasuna, mobilizatzeko ahalmena eta eskari zuzenak oinarri hartuta".



Nafarroako UGTko idazkari nagusi Jesus Santos prentsurrekoan. NAVARRA.UGT.ORG

UGT: "helburu bakarra lurraldea zatitzea eta markatzea da"

UGTk adierazi du ez datorrela bat "ez formarekin, ez edukiekin, ez deialdirako aukeratu den unearekin".

SAKANA

Ostegunerako deitutako grebak ez du UGTren babesik izanen, uste baitu "ez duela justifikaziorik. Sindikatu banaketa sakontzen duen deialdi sektarioa" da, eta "orain arte pentsiodunen eta bestelako gizarte taldeen mobilizazioen ezaugarri izan den batasuna hausten du". UGTtik gaineratu dutenez, "deialdi desegokia da, orotarikoa eta nahasia, borroka politikoko eta protagonismo eskusibo eta baztertzailako estrategia sindikalari soilik erantzuten diona, pentsio mugimenduaren bidezko aldarrikapenak eta gizarte-maila handien nahiak erabiliz".

UGTkoen iritziz greba orokorra deialdia "une desegokian egingo dako deialdia da, Gobernu aurrerakoi batek kargua hartu berri duenean, eta haren lehen erabakia pentsioen balioa KPIaren bilakaeraren arabera han-

ditzea izan da, horixe baitzen erretirodunen eta pentsiodunen erakundearen funtsezko aldarrikapenetako bat". Eta Espainiako Gobernuak eratzeko koalizio programan gizarte eta lan arloko hainbat neurri jaso direla gogorarazi du.

UGTk kritikatu duenez, "sindikatu nazionalistak ohituta daude deialdi partikularretara, desberdintzeko asmoz, eta are greba orokorrarako deia egitera ere, gehiengo duten sindikatuek aukeratutakoa ez den beste egun batean, lantokietako plantillak hautsiz eta mobilizazioaren ondorioak mugatuz, patronala eta momentuko gobernu nahasteko". UGTk "PPren Gobernuak inposatu zituen lan-eta pentsioen erreformak indargabetzeko borrokan jarraituko du". Horretarako, "elkarrizketa soziala eta gobernu aurrerakoiekin hitzarmena egingen ditugu".



107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

URTARRILAREN 30EKO GREBAREKIN BAT EGINEN DUGU ETA EZ DA SAIORIK EGONGO

948 567 074

irratia@beleixe.eus



ASTEKOA

RAF ATXURI

Sanchez-en agintaldia dela-ta

Ilbeltzaren 7tik, eta zenbakiz ozta-ozta Espainiako erresuman esperientzia guztiz berri bati ekin dio Madrilgo Gorteek bozkatu duten Pedro Sanchez presidenteari. Trantsizio garaiaz geroztik UCD-PP eta PSOE txandakatu dira ziklo labur nahiz luzeetan eta alderdiz kanpoko laguntzarekin garatu dituzte legegintzaldi guztiak, aritmetika parlamentarioaz baliaturik.

Oraingoan zerbait berria aditzen da, usaimen, entzumen nahiz ikusmenen. Tira, ez dakigu zinez hitzarmen honetatik taxubide funtsezkoenak eta norantza benetan aldatuko diren, Europak baimentzen duen heinean, behinik behin.

Asmoak asmo eta norantzak norantza, Espainia eternaleko eragile batzuk ozenki eta zakar astindu dituzte barrenak, uzki, heste, errai, birika eta zainak. 34 eta 36koarekiko antzak eta egintzak ekarri dituzte gogora eta apokalipsi guztiei dei egin diete, ezkertiarren gobernuari iraungitze-data al bait hurbilena izan dadin.

Izan ere, PSOEak azken 38 urteotako ibiliari muzin eginez, lehenengo aldiz ezkerrean egin du ziaboga estatuaren gobernuaren hezurmamitzeko orduan. Autonomia elkargoetan eta

udaletxeetan balio zuena ez zen ontzat hartzen Moncloarenean aplikatzeko.

Eta erronka ez da makala, makala ez denez inola ere; hara, Kataluniako afera, laizismoaren lanketa, lan-erreformari eta mozal legeari buelta ematea, indarkeria

matxistaren erroei gogor egitea, hezkuntzaren inguruan adosturiko lege bat azkeneraino eramatea, ETaren ondoreneko kudeatzea, datorkeen makalaldi ekonomikoari aurre egitea, pentsioen bideragarritasuna edota nazio-aniztun estatua itxuratzea...

Denbora poligrafo bakarra da, Lekunberriko poetak zapla bota zigun, eta berriro ere geroak esanen. Bada, lerro hauetatik neure iragarpena botako dut: baietz hiru urte egin gobernu honek!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitululua bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Gure bizitzen alde, u30 sakana grebara!

UNAI RAZKIN IRIARTE

Pribatua ala publikoa. Patronalaren irabaziak ala langileen eskubideak. Kapitala ala bizitza.

Heldu den urtarrilaren 30ean herri sektore eta langile eskubideen alde gaudenok kalera aterako gara, LAN-PENTSIO-BIZITZA duina aldarrikatzen duen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta. Bizitza erdigunean jarriko duen eredu sozial baten eraikuntza pauso bat emango dugu aurrera.

Sistema kapitalista eragiten ari den lan eta bizi baldintzen prekarizazioaren aurrean, bizitza duina izateko eskubidea errespetatzea exijituko dugu. Izan ere, gaur

gaurkoz lana izateak ere ez du bermatzen bizitza duina izatea. Asko dira miseria gorrian bizi diren langileak. Sakanan, Euskal Herri osoan bezala, nabariak dira prekarietatea eta lan eta bizi baldintzen okertzea, esaterako:

- Azken bost urteetan Altsasuko enplegu bulegoan 34.591 kontratu sinatu dira. Horietatik %93,2 behin behinekoak izan dira. Hau da, 32.228 aldi baterako kontratu sinatu dira 20.000 biztanle inguruko eskualdean.
- Gaur egun Nafarroan emakumeen lanaldi partzial tasa %28,53 da. Gizonen lanaldi partzial tasa aldiz %5,62 da. Zaintza lanak eta jardunaldi partzial inposatu jasaten dute emakumeek.
- Soldatak oro har aurreko hamarkadan baino

kaxkarragoak dira. Adibide argia dugu Irurtzango HYDRO enpresan langileek soldata arrakalaren kontra egindako borroka. Izan ere, lan berdina egitegatik langileen arteko soldata desberdintasuna urtean 5.000 euro izatera heldu daiteke.

- Langile, gazte, pentsionista eta abarren eros ahalmena gero eta murriztagoa da.
- ...

Urtarrilaren 30eko Greba Orokorrak sistema aldatzeko beste pauso bat izan behar du. Azken hamarkadetako prekarizazio prozesua geldiarazi eta herritarren gutxieneko eskubideen aldeko mugari izan behar du. Gure bizitzen gainean erabakitze eskubidea geureganatu behar dugu.

Gure bizitzen alde, U30ean sakandarrok kalera!

LEHENENGO ALDIZ EZKERRERA EGIN DU ZIABOGA ESTATUAREN GOBERNUA



OBJEKTIBOTIK



UTZITAKOIA

Urdiaingo mendia garbitzeko sartu duten makineria beharrezkoa?

Zuhaitzak mozteko garaia heldu da, gure etxeetako tximiniak berotzeko, mendia garbi mantentzeko edo kimu berriei

lekua egiteko. Baina Urdiaingo basoetan aurten pasatu egin dira, sartutako makineriak garbiketa baino sarraski

handiagoko egin duela esan digu argazkia bidali digun irakurleak, horrela ez da ezer gehiago haziko.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Haurrak eta gurasoak Arbizuko plazan. ARTXIBOA



#UrrutiraGoaz karteelko irudia.



Gaur, 18:00etan, Nafarroako Parlamentuaren parean kontzentratuko dira. ARTXIBOA

D eredu gorako bidean: ikasleen % 83k ikasten du

Euskarazko ereduak inoizko portzentaje handiena hartu du ikasturte batetik bestera 0,5 puntu gora eginda

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak irakaskuntzako hizkuntza ereduaren bila-kaera datuak jakinarazi ditu. Hezkuntzako eta soziolinguisten iritziz euskarazko murgiltze ereduak da hizkuntza ikastea bermatzen duena. Mank-ek 2019-2020 kurtsuari buruz zabalduetako datuen arabera, ikasturte honetan ibarreko ikastetxeetan 2.690 ikasle ari dira ikasten. Haietatik, 2.234 (% 83 eta 0,5 gora) D ereduaren ikasten ari dira. 339 A ereduaren (gaztelaniaz eta euskara ikasgaia) ari dira (% 12,6 eta 0,9 behera) eta, azkenik, B ereduaren (ikasgai gehienak euskaraz, batzuk gaztelaniaz) 117 ikasle daude (% 4,4 eta 0,4 gora).

Zikloka

Haur Hezkuntzan (HH) 2019-2020 ikasturte honetan 584 ikasle daude. Matrikulazioak beherako joerarekin segitzen du. Aurreko ikasturtean 45 ikasle gutxiago bazeuden, oraingo honetan hiru besterik ez ditu galdu HHk. Hezkuntza ziklo honetan D ereduak 510 ikasle ditu, % 86,6. Aurreko ikasturtean 1,5eko hazkundean izan ondoren, oraingo honetan 4 ikasle eta 0,3 jaitsi da. A ereduak HHko ikasleen % 9,6 hartzen ditu, 56 (1,6 eta 9 ikasle gehiago). B ereduaren berriz, ikasleen % 3,8 ari dira, 22 (1,3 eta 8 ikasle gutxiago).

Lehen Hezkuntzak ikasturte batetik bestera 5 ikasle galdu ditu eta 1.460 dira 2019-2020 kurtsuan ziklo horretan izena eman-

da daudenak. Aurreko ikasturteko 0,2 puntuko igoeraren ondoren 2019-2020 ikasturtean D ereduak 1,3 egin du behera eta 22 ikasle gutxiago ditu, guztira 1.183. Lehen Hezkuntzako ikasleen % 81. A ereduak ikasleen % 12,5 ditu eta aurreko ikasturtean gutxieneko historikoa izan ondoren pixka bat gora egin du (0,4 eta 5 ikasleko hazkundea). Azkenik, B ereduak matrikulak hirugarren urtez gora egin du % 6,5era iritsiz (0,9 gehiago eta 13 ikasle gehiago).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) 646 ikasle ikasten ari dira 2019-2020 kurtsuan, aurreko ikasturtean baino 133 gutxiago (% 17,7ko jaitiera). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskarazko ereduak jauzi handia egin du eta estreinazko matrikulatutako ikasleen % 80 baino gehiago bertan ikasten ari da. Zehazki 545 ikasle edo % 84,4 (4,7 gehiago eta 76 ikasle gutxiago). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan A ereduaren 101 ikasle daude matrikulatuta. Estreina, % 20tik beherako ikasle kopuru bat ari da gaztelania ardatz duen ereduaren ikasten: % 15,6 (4,7ko jaitiera eta 57 ikasle gutxiago).

D EREDUA: HH-N 506 IKASLE (0,3 BEHERA) ETA LH-N 1.183 (1,3 BEHERA) ETA DBH-N 545 (4,7 GORA)

Euskarazko irakaskuntza, urrutira joateko!

Toki-erakundeek matrikulazio garaian D ereduak aukeratzeko deialdia egin dute

SAKANA

Nafarroako hainbat udalek eta mankomunitatek, Sakanako Mankomunitatea barne, D ereduaren berri emanen dute euren eramuetan. Horretarako, *aspalditik gatz, urrutira goaz* leloa duten kartelak, bideo bat eta sare sozialetan zabalduetako komunikazioak baliatuko dituzte. Guztia familiei azaltzeko "euskarazko irakaskuntza oso interesgarria" dela. Toki-erakundetako ordezkariak azaldu dutenez, D ereduak "hizkuntza aniztasuna kontuan hartzen duen hezkuntza tekniko eta humanoa izateaz aparte, gertuko kulturaren gozamenaren bidez mundu zabalari begiratzeko aukera ere eskaintzen baitu".

Hori dela eta, Nafarroako udal eta mankomunitate horietatik familiei eskatu diete euren seme-alabak ikastetxean matrikulatzerakoan euskarazko irakaskuntza hautatzeko. Gaineratu dutenez, hori eginda "bizitzako bidaiarik ederrena oparitutako diezu". Udaletako eta mankomunitateetako arduradunek gaineratu dutenez, "helburua kontuan harturik, Euskara Zerbitzuen bidez, era askotako baliabideak eskaintzen dizkiegu familiei euskararen ezagutza eta erabilerara bizkortzeko".

Haur eskoletako langileek prekaritatea salatuko dute

Doakotasuna, langileek antzinasuna kobratzea, soldata duina, ratioak jaitea eta beste aldarrikatuko dute

SAKANA

Haien egoera bideratu arte hamabostean behin Nafarroako Parlamentu parera eramanen dute euren protesta. 0 eta 3 urte arteko haur eskoletako langileek dira protestan ari direnak. Protesta egiten duten bakoitzean

kaka mokordo moduko bat jartzen duten Parlamentuaren parean eta horrela adierazi nahi dute 0 eta 3 haur eskolen politika "kaka bat" dela. Zikloa hezkuntzaren parte dela eta haur eskola guztiak Hezkuntza Departamenduaren menpe egotea eskatzen dute.

Idaretak Concepcion Arenali buruzko liburua argitaratu du

Irurtzundarrak Arenal Espainiako gizarte-lanaren historiako lehen gizarte-langilea dela aldarrikatu du

IRURTZUN

Francisco Idareta Golarazena Nafarroako Unibertsitate Publiko (NUP) Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakasleak *Concepción Arenal: reformadora social y moral desde la compasión* liburua argitaratu du (Gizarte Lanaren Kontseilu Nagusiak eta Paraninfo Ediciones). Idaretak esan duenez, "Concepción Arenal gutxieneko printzipio moralen atalase bat zehaztu zuen, giza eskubideen lehen espainiar aurrekaritzat har daitekeena, eta feminismoaren oinarriak ezarri zituen, emakumeek gizonen eskubide berberak ez zituztela salatuz". Haren iritziz, "Arenalen lan guztia gizarte-laneko tratatu bat da, bere garaiari oso aurreratuta dagoena eta etikatik abiatuta egituratzen dena". Autoreak "errukiaren etika" izenekoan kokatzen du Arenalen lana.



Idareta liburua eskutan duela. NUP

Arenal (Ferrol 1820-Vigo 1893) jaio zeneko 200. urteurrena dela eta argitaratu da liburua, Gizarte Lanaren Kontseilu Nagusiaren babesarekin. Kontseiluak emakume unibertsal horren bizitza eta lana sustatu eta ikusarazteko jarduerak egingo ditu aurten.

Jubilatu elkarteendako 39.600 euroko dirulaguntza

Boluntarioria lanetarako eta programazio gastuetarako dirulaguntza eman die foru administrazioak

SAKANA

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak jubilatu elkarte, federazio eta beste erakunde batzuen artean 650.000 euroko laguntzak banatu ditu. Haietatik 590.000 euro aurren autonomia sustatzeko proiektuak, bizitza aktiboa sustatu eta ospakizunekin, aisialdiarekin eta denbora librearekin lotura duten proiektuak egin dituztenendako izan dira. Gainontzeko 60.000 euroak, berriz, gizarte-laguntzako jardueretarako eta arlo horretako prestakuntzarako boluntarioria-proiektuetara bideratu dira. Sakanako bederatzi jubilatu elkarte 39.625,23 euro jaso dituzte. Haietatik 37.793,23 euro programazioak sortutako gastuak estaltzeko dira eta gainerako 1.832 euroak, berriz, boluntarioria lanetan aritu direnendako.

Elkarteendako dirulaguntzak

| Herria | Laguntza |
|-----------------|------------------|
| Iruztzun | 5.231,99 |
| Uhartea Arakil | 8.692,81 |
| Lakuntza | 5.225,28 |
| Etxarri Aranatz | 8.365,45 |
| Bakaiku | 366,98 |
| Iturmendi | 2.717,39 |
| Urdiaín | 340 |
| Altsasu | 5.488,99 |
| Olatzagutia | 3.196,04 |
| Sakana | 39.625,23 |

ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Telebista-antena birsintonizatu beharko da

Ibarrean telebistako frekuentziak otsailaren 17tik aurrera hasiko dira aldatzen. Etxebizitza komunitateek zuzeneko dirulaguntza jasotzeko aukera dute. Argibide gehiagorako: www.televisiodigital.es edo 901 201 004 eta 910 889 879 telefonoak

SAKANA

Europar Batasunak telekomunikazioetako 5G teknologiatik etorkizuneko sareei tokia egiteko eskatu du. Espektro erradioelektrikoko 700 Mhzko bandak garagartzaroaren 30erako erabilgarri egon behar du. Ondorioz, Lurreko Telebista Digital (LTD) bidez ikusten diren estatuko eta erkidegoetako telebista batzuek frekuentziak aldatu beharra dute.

Sakanan aldatuta hori otsailaren 17tik aurrera egingen dute. Ondorioz pisu blokeetan talde telebista-antenen instalazioa egokitu egin beharko da. Hori ez bada egingen ez da telebista katerik ikusiko etxean. Behin



telebista-antena frekuentzia berritara egokituta, urrutiko agintearen laguntzaz telebistak birsintonizatu beharko dira.

Antena-teknikarien lanak kostua izanzen duenez, gobernuak aldatetarako ukitzen dituen etxebizitza komunitateei zuzeneko dirulaguntza ematea erabaki du. Eraikinean aurretik zegoen azpiegituraren arabera 104,3 eta 677,95 euro arteko dirulaguntza jasotzeko aukera dute komunitateek. Dirulaguntza eskaerak irailaren 30era arte egiteko aukera izanen da. Eskaerarekin batera faktura eta instalazio buletina aurkeztu beharko dira. Dirulaguntza jasotzeko egokitzapena Telekomunikazio Instalazioen Erregistroan izena emanda dauden instalazio-entrepresek egin behar dute.

IKASTOLA
ETORKIZUNERANTZ
HEZKUNTZA ERALDATZEN

IÑIGO ARITZA IKASTOLA
ikastola@inigoaritza.eus
San Pedro, 16. Altsasu
948 562951

ANDRA MARI IKASTOLA
etxarri@ikastola.eus
Utzubartziki, 3. Etxarri Aranatz
948 46 02 86

TXIOKA HAUR IKASTOLA
txioka.haur.ikastola@inigoaritza.eus
Santokristobarren, z/g. Altsasu
948 37 30 23

ikastolenelkartea

"Paris 365 jangela sozialarekin jendea bustitzea lortu dugu"

Haren aldeko asteburuaren balorazio ona egin dute. Guztira 2.930 euro eta bost bazkide berri lortu dituzte

IRURTZUN

Iratxo elkarteak Paris 365 jangela sozialaren aldeko asteburua hartu zuen eta handik makina bat jende pasa zen. Egitasmoa kudeatzen duen Gizakia Herritar fundazioko Patxi Lasak eta Mikel Legarrak 50 pertsonari azaldu zizkieten egitasmoaren nondik norakoak. Gaur egun ekonomia, osasun edo gizarte arrazoiengatik elikadura egokia eskuratu ezin dutenei laguntza ematen die. Eta, gainera, haurrendako Garabato ikasketa komunitatea dute. Lasak eta Legarrak azaldu

zutenez, erakundeen eta norbanakoen diru ekarpenak behera egitean hainbat proiektu bertan behera utzi dituzte eta aipatutakoekin aurrera egitea erabaki dute.

Baina diru ekarpenek beherakadak Paris 365 bera kinka larrian utzi zuen eta otsailerako 100.000 euro jasotzeko kanpaina abiarazi zuten. Fundazioko kideek gaztigatu zuten, ilbeltzerako helburuaren % 70 bete zuten. "Hilean zehar jarduerak egin direnez, helburua beteko dugula uste dugu. Horrela bada, 2020 eta

2021 urteetarako egonkortasuna izanen dugu. Zoritxarrez, premia duen jendea egoten segitzen duelako".

Irurtzunen

Paris 365 jangela sozialaren aldeko dirua lortzeko eta prekarrietaren errealitatearen berri emateko asmoz antolatu zuten elkartasun asteburua irurtzundarrek. Ekonomia arloari, larunbateko bazkarian 85 pertsona elkartu ziren. Jan-edanak herri-tarrek, dendaren batek eta tabernaren batek emandakoak izan zirenez, afaria egiteak inolako gasturik ez zuen izan eta guztia irabazia izan zen, 1.415 euro. Igandean Iratxo elkartearen egin-dako azokan liburuekin 257 euro eskuratu zituzten, arroparekin 393 eta tabernarekin 340 (jendeak emandako pintxoak eta edariak



Igandeko azokan arropa, liburuak eta beste eros zitezkeen. UTZITAKOA

zerbitzatu ziren). Horretaz aparte, jendeak 525 euro eman zituen eta bost bazkide berri egin ziren. Guztira Paris 365 jangela sozialarendako 2.930 euro jaso ziren. Eta baliabide horren beharra agerian utzi zuten.

BOLUNTARIO IZAN NAHI DUENAK: 948 222 425 EDO VOLUNTARIADO@PARIS365.ORG

U30

GOAZEN GREBARA!

lan pentsio bizi DUINA!

1200€ gutxieneko soldata

1080€ gutxieneko pentsioa

Pentsio eta soldata arrakalarik ez

Hemen erabaki

35 orduko lanastea

SAKANDARRAK GREBARA!

LAB

Herri-ihotearen segizioa Guadalajaran

Salmeron herrian larunbatean ospatu zen aurreneko botarga topaketan parte hartu zuten olaztiarrek. Bi bisita bueltan izanen dira: Valdenuño Fernandez botargak eta dantzariak otsailaren 22an eta Salmerongo botargak San Migel festetan

OLATZAGUTIA

"Olatzagutia ezagutzera eman, gure herriaren ondarea eta gure herri ihoteak merezi duela erakustea". Horiek dira Olatzagutiko herri ihotea kanpoan ezagutarazteko Adelaida Kintanak emandako arrazoiak. Bera ihote batzordeko kidea da eta azaldu digunez, Guadalajarako Salmeron herrian "ikaragarri gustatu zaie gure ihotea. Despedida oso hungigarria izan zen, 20 pertsona atera ziren gu despeditzera. 200 bat biztanle dira eta larunbatean halako ikuskizuna hartzea haiendako handia izan da".

Topaketan Guadalajarako zazpi herri-tako botargek, maskaritek eta "vaquillek" bat egin zuten. Eta haiekin batera, 26 olaztiar (zamar handiak, zamar txikiak, alkate jaun-andreak, neskak eta Mari Arroka). Kintanak azaldu digunez, ihote garaitik aparte, maskarekin neguko beste egun batzuetan ere maskara jartzen dutenak dira botargak, besteak,



Olaztiarrek zortzikoa ere dantzatu zuten Salmeronen. UTZITAKOA

mozorrotoak". Guztiek euren mozorroak arratsaldean egin zen segizioa erakusteko aukera izan zuten. Herrian barnako kalejira eta gero olaztiarren segizioa plazara iritsi zen. "Han dultzaineroak zeuden, gu farekin bate-

ra eta bestera eta Mari Arrokaen igitaiari su eman genionean ikusgarria izan zen. Botargak gure inguruan jarrita zeuden". Anhaize Basalduen eta Navalosako Cucurumachosen ondoren, botargak bisitan etorriko dira.

Pentsio duinen aldarrikapenari segida

Pentsiodunen mugimenduak gutxieneko pentsioak 1.080 eurokoa izan behar duela aldarrikatzen segitzen du. "Neurri horrek miseriatik milioika pentsiodun aterako lituzke" eta % 0,9ko igoeraren "ezkutuko aldea" salatu dute

SAKANA

Espainiako Gobernuak pentsioak % 0,9 igotzea erabaki zuen, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) araberrako igoera. Eta, horrela, PPK 2013an pentsioen erreformarekin onartutako % 0,25eko igoera bertan behera gelditu da. Pentsiodunen mugimenduak KPIaren "ezkutuko aldea" salatu du: "erosketa poltsa, argindarra, gasa, erregaiak... 7 puntu baino gehiago igo dira azken 3 urteetan, KPI, berriz, 3,8 besterik ez".

Bestetik, pentsiodunek gogorarazi dute 2012an PSOEek UGT eta CCOO sindikatuarekin adostu zuen pentsioen erreformaren ondorioz, 2027 urterako jubilatze epea 65 urtetik 67 urtera pixkanaka pasatzea erabaki zutela. Aurten jubilatzeke lege epea 65 urte eta 10 hilabetekoa da eta hala egiten dutenen pentsioa kalkulatzeko kotizatutako azken 23 urteak hartzen dira kontuan. Nahiz eta aurten 65 urte izan eta 37 urte kotizatuta dutenek pen-



Astelehenero, 12:00etan, udaletxe parean pentsio duinak aldarrikatzen dituzte.

tsioaren % 100 jasotzeko aukera izanen duten.

"Lehen 65 urterekin jubilatzen zirenen lanpostuak gazteek betetzen zituzten. Erreforma indarrean egotean ezinezkoa da. Gazteek % 100eko pentsioa es-

kuratzeko urte gehiagoz lan egin beharko dute". Pentsiodunek gogorarazi dutenez, Frantziako pentsioen erreformaren kontrako mugimendua eragin duen faktoreetako bat jubilatzea 62 urteetatik 64 atzeratzea izan dela.

Etxebizitza, 45 urtetik beherakoan kezka

Urdiaingo Udalaren alokairu premiari buruzko inkesta 45 urtetik beherako urdiaindarrek erantzun dute

URDIAIN

Alokairuzko etxebizitza premia zein den jakiteko Urdiaingo Udalak egindako galdeketa 25 urdiaindarrek erantzun dute. Zenbat logelatako etxebizitza hartu nahiko lukeen errentan galderrari % 44k erantzun diote hirukoa nahi luketela, bi logelatakoa % 40k, logela bakarreko etxebizitzak % 24k nahi luke, lau logelatakoa % 8k eta beste etxebizitza mota baten alde % 4k egin du. Etxebizitza alokatuz gero zenbat denborarako alokatuko luketen galdetuta, erantzun duten urdiaindarren % 60 aldi baterako etxebizitza nahi luke eta % 52k etxebizitza iraunkorra. Azkenik, urdiaindarrei eskatu zitzaizkien atzeneko errenta aitortpenaren aitortutako diru sarrerak gutxi gorabehera zehaztea. Hona emaitzak: 9.000 euro baino gutxiago eta 12.000 eta 20.000 artean aitortu zituztenen kopurua bera izan zen, % 36; 20.000 eta 40.000 euro artean % 20 zeuden eta 9.000 eta 12.000 euro artean % 8.

David Oroz Alonso alkateak esan digunez, urdiaindarren artean etxebizitzaren inguruko kezka sumatzen zutelako zabaldu zuten galdetegia, "gaia plazaratzeko

asmoz. Gazteak emantzipatzeko dituzten zailtasunak herrian jakinak direlako". Orozek azaldu digunez, galdetegia etxebizitza politikak kudeatzen dituen Nabusinsa enpresa publikoarekin ereduari segituz egin dute. Harekin etengabe harremanetan daude finantziario moduren bat lortu eta urdiaindarren etxebizitza premiari erantzuna emateko. "Honetan guztian oso hasierako fasean gaude. Bitartean, etxebizitzari buruzko kezka plazaratu nahi izan dugu".



Urdiaingo ikuspegia. ARTXIBOA

Errepresioaren kontrako jardunaldiaren segida

Ospa!-k antolatuta, gaur arratsaldean egitarau bete du. Bihar prentsaurrekoa emanen du

ALTSASU

Ospa! Herri mugimenduak antolatutako errepresioaren kontrako asteak gaur eta bihar izanen du segida. Gaur, 17:45ean, Insurgentzia dokumentalaren aurkezpena, gaztetxean. Ondoren, 19:00etan, Sakanako gazte asanbladak deitu duten manifestazioaren parte hartzera deitu dute. 20:30ean, berriz, isunen kontrako pintxo-poteoa hartuko du gaztetxeak. Gazte lokalak errepresioaren kontrako afaria hartuko du 22:00etan. Eta gaurko egitaraua despeditzeko, afaldu

ondoren, Liberando el corazon bakarlariaren kontzertua izanen da.

Espainiako Auzitegi Nazionalak ez zuen Ospa egunean "terrorismo delitirik" ikusi, baina Nafarroako Lurralde Auzitegiaren esku utzi zuen auzia, "gorroto delitua" dagoen ikertu dezan. Ospa!-k "jasotako erasoari erantzuteko", larunbatean, 13:00etan, prentsaurrekoa egingen du udaletxe parean. Bestalde, atzo, berriz, adierazpen askatasuna eta errepresioa izan zituzten hizpide mahai-inguru batean.

382 kontrol

Ospa!-k joan den iraila eta abendua bitartean 87 kontrol zenbatu zituen Altsasan. Haietatik 48 Foruzaingoarenak izan ziren (% 55,17) eta gainontzeko 39ak Guardia Civilarenak (% 44,82). Ospak jakinarazi zuen 2019ko ilbeltza eta apirila bitartean 168 kontrol izan zirela eta maiatza eta agorrila bitartean 127. Beraz, Ospak 382 kontrol zenbatu zituen 2019an, 1,04 kontrol eguneko. 220 (% 57,59) foruzainenak eta 162 Guardia Civilarenak (%42,40).



DUELA 25 URTE... 1995/01/24



Zaldia futbolean irabazle

1994-1995 denboraldian II. Sakanako futbol txapelketa jokatu zen. Azken jardunaldia ilbeltz akabera izan zen. Arakilgo Zaldia taldea izan zen txapelketa eskuratu zuena, baita kiroltasun saria ere. Lehiaketan Arbizu, Lagun Artea, Txapel Azpi, Etxarri Aranatz eta Sutegi taldeak aritu ziren. Elomendi ligan Zaldia 3. bukatu zuen eta txapelketa hartako kopa eskuratu zuen.



Amaraunaren egoera eta proiektua sakandarrei azaltzeko ate irekien jardunaldia antolatatu dute otsailaren 1ean. ARTXIBOA

Amarauna erosi, ametsak ehuntzen segitzeko

JORDI ARBIZU AMARAUNAKO KIDEA

Ziordiko komentua zena Amarauna gune autogestionatua da 2015etik. Kolektiboari utzitako eraikinak eta lurak erosteko aukera sortu zaito

ZIORDIA

Nolaz sortu zen Amarauna?

Lau lagun Sakanan elkarrekin bizitzeko etxebizitza bilatzen ari zirela, kasualitatez, aukerarekin topo egin zuten. Mojek utzi egin behar zuten eta hura zainduko lukeen norbait nahi zuten. Lau lagun haiek etxe batean bizitzera sartu ziren. Lagapen kontratu baten bitartez lurak eta etxetxo erabiltzea lortu zuten. Mojek proposatu zieten urte betera espazio guztiaren erabilera jasoko lukeen proiektu bat aurkezteko. Hori

2015ean izan zen. Aukeraren aurrean lau lagun haiek hainbat pertsonarekin elkartu ziren: mugimendu sozialetako kideak, hazkuntza kontzientea, feminismoak, ekologia... Hainbat kezkatatik proiektu bat garatzeko.

AMARAUNA: 2.400 M2 HIRU SOLAIRUTAN BANATUTA, ETXETXOA, ESTARBIA ETA 3 HEKTAREA LUR

Lana...

Hainbat bilera egin genituen proiektu horrekin zer egin erabakitzeke. Gure helburuak eta gure komuneko ikuspegia zein izanen zen finkatu eta 2017an Amarauna elkarte sortu genuen. Eta espazio osoaren zesia lortu genuen 2017an. Hortik aurrera hasi zen Amarauna jarduerak hartzen.

Zer jarduera mota?

Bazkideak ditugu. Espazioaz gozatu dezaten, gastronomia elkartearen erara-edo. Badago jen-

dea erabiltzen duena, esaterako, asteburu batzuetan lo egiteko, edo euren haurrendako merien-dak egiten dituzte... Bestetik, kolektiboak etortzen dira. Espazioa oso handia da eta, gehien bat, Euskal Herriko gizarte mugimenduei eskaini genien. Barne jardunaldiak edo kanpora begirako ekintzak ere antolatzen dituzte. Horretaz aparte, hainbat proiektu garatu dituzte bazkide diren pertsonak. Baratzeko ekologiko dugu eta hortik bi pertsona bizi dira. Gaur egun hainbat pertsona bizi gara Amaraunan. **Bazkideak, nolakoak da? Zein eskubide ematen dizu Amaraunako bazkide izateak?**

Batetik, batzarrean parte hartzen dugun bazkideak gaude, proiektuaren kudeaketa eta taldeak etortzen direnean harrera egiten daramagunak gaude. Amaraunako proiektu bat garatu nahi dutenek, ezinbestean, batzarreko kide izan behar dute. Urteko 70 euroko kuota aparte, zerbitzuaren araberako kuota ere badu. Beste bazkide mota bat da soilik urteko 70 euroko kuota pagatzen duena, hainbat espazio alokatzeko eskubidea duena.

Orain erosteko aukera mahai gainean jarri dizute, ezta?

Bai. Hasieratik bagenekien espazio horretan ez ginela betirako egonen. Proiektua martxan eta funtzionatzen zuela ikusita, mantentzeari eta gastuei aurre egiteko gai ginela ikusita, beraiek erabaki zuten espazioa salduko zutela. Hori 2018ko abenduan izan zen. Urte guztia horrekin egon gara: "erosteko prest bazeundete, zuei lehentasuna emanen genizueke". Zein prezioetan salduko luketen tanteatu genuen, horren arabera ikusi dugu, bai edo ez.

Hausnarketa sakona eskatuko zizuen, ezta?

Hala da. Eskaini ziguten prezioa katastroko prezioa baino txikiagoa zen. Orduan bueltak ematen hasi ginen: "agian honek merezi du buelta batzuk ematea. Gu ez bagara gai hau erosteko, behintzat inguruko norbait izan dadila honi aukera emanen diona". Eztabaida sakona eta gero taldean

DIRU-EKARPENAK EGITEKO: ES67 3035 0018 41 0180045376 KONTU KORRONTEA (LABORAL KUTXA)

iritzi desberdinak zeuden. Modu zehatz batean erostea erabaki genuen. Horretarako kooperatiba bat sortuko genuke, jabetza kolektibizatzeke, Armiarma kooperatiba. Han sartu garenak, kooperatibarekin erosketa kudeatuko dugu. Amaraunako kide guztiak ez daude ardura horrekin, bai gehienak. Armiamatik kudeatuko da hemendik aurrera egiten den elkarbizitza. Erosketaren helburua izanen da garatu dugun Amaraunaren proiektua mantentzea eta elkarbizitza proiektu bat iraunkor egitea. Orain arte urteko kontratua sinatzen egon gara. Horrekin ez zegoen ez proiektuorik ez ezer.

Horrek lasaitasuna emanen dizue zuen proiektuak garatzerakoan?

Bai. Inbertsioak egiteko ere bai. Berotzeko sistema aldatzeko... Beste ikuspegi bat dugu orain. Kooperatiba sortzen eta finantziarioa bilatzen lan handia dugu orain. Baita orain arte egin ez dugun gizarteratze lan horren inguruan hausnartzen ere: ahalik eta jende gehienak erabil dezan, mantentzea errazteko eta behar dugun dirua lortzeko. 320.000 eurotan dago salgai. Aurtengo lastaila baino lehen pagatu behar dugu. Zati bat aurreratu dugu. Erres edo seinale kontratua sinatu dugu. Lastailerako diru hori lortu behar dugu. Ez da diru kopuru oso-oso handia, baina, beno, guk diru hori ez dugu. Gure helburua da, ahal bada, banku-etxeen beharrik gabe ordaintzea. Ahal bada, donazioak jasoz, eraikina erabiltzen duten erakundeak, edo proiektua bere egiten duten pertsonen edo kolektiboaren donazioekin. Edo, bestela, mailegu pertsonalekin. Uste dugu gai izanen gara mailegurik gabe ordaintzea hori egin ahal izateko.

Amarauna proiektua ezagutarazteko zer egingen duzue?

Ziordiarrei egitasmoaren berri eman genien hilaren 4an. Sakanan hainbat bilera edo hitzaldi antolatu nahi ditugu. Iruñean eta Gasteizen ere gauzak lotzen ari gara. Nahi duten sakandarrek proiektua ezagutu eta gerturatzeke aukera izan dezaten, Sakanara begirako ate irekien jardunaldia egin nahi dugu Amaraunako otsailaren 1ean, larunbatean, 17:30etik aurrera. 21:00etan herriafaria izanen da izanen. Izena emateko: armiamaziordi@gmail.com edo 679 553 734.

+www.guaixe.eus

Hirigintza-plangintza egiteko, parte hartzea

Udal Plan Orokorraren bidez hurrengo urteetarako hirigintza-plangintzaren agindu garrantzitsuenak zehaztuko dira. Udalak Herritarren Partaidetzarako Planaren barnean hainbat lan-topaketa eginen ditu otsailaren 2. hamabostalditik aurrera

ALTSASU

Altsasuko Udalaren hirigintza plana edo Udal Plan Orokorra 2002koa. Aurreko legegintzaldian udalean ordezkaturata zeuden alderdi guztiek premiazko zatitza jo zuten plan berria izatea. Javier Ollo Martinez alkateak behar hori horrela laburbildu izan du: "dugun plana Altsasuko Udalarendako ez da tresna bat, askotan arazo bat da". Horiek horrela aurreko legegintzaren akaberan Altsasuko Udalak Udal Plan Orokor berria egiteko pausoak eman zituen. Aurrekontuetan horretara 245.000 euro bideratu zituen, horietatik % 80 Nafarroako Gobernuak pagatuko ditu.



Altsasuko ikuspegia Bargagaingo gurutzetik. ARTXIBOA

Herri baterako hirigintza araudia onartzea epe luzeko lana da. Eta prozeduraren barruan ezinbestekoa da herritarren parte hartzea. Lehen pauso horren bidez udalak herriko hainbat sektoreren egoerari buruzko informazioa jasoko du. "Informazio hori izatea ezinbestekoa izanen da gure udalerriko errealitate sozioekonomikora egokitu den Udal Plan Orokorra egiteko". Partaidetza planaren barruan hainbat bilera eginen dira, eta horien datak udalak garaiz jakinaraziko dituela aurreratu du.

Herritarren Partaidetza Planaz

Altsasuko Udalak parte-hartzearen bidez herritarren ekarpenak jaso nahi ditu. Horretarako, indarrean dagoen planari buruzko informazioa altsasuarren eskura jarriko du. Bestetik, herri inklusiboagoa definitzeko, kon-tuan hartuko dira bi sexuen arteko berdintasun-aukerei buruzko alderdiak.

Planaren berrikuspenak zazpi pauso ditu. Aurrenekoan, natura-eta kultura-ondareari, herriari, ekipamenduei, azpiegiturei,

ekonomia jarduerari eta mugikortasunari buruzko hainbat informazio jasoko da, diagnostia egiteko. Bigarren pausoa alternatibak zehaztu eta aurretiazko Lurralde Okupazio Eredu eta Estrategia (LOEE) egitea izanen da. Fase horretan Udal Hirigintza Planaren egitura orokorra eta organikoa definituko duten ildo nagusiak osatuko dira. Fase hori garrantzitsuena da parte-hartze publikoari dagokionez, udalerraren eredu definituzen baitu. Udalak antolamendu alternatibak dituen proposamen bat jarri du mahai gainean, eta proposamen horren gainean kokatu eta eztabaidatu behar da. LOEE egin aurretik, iradokizunak jasotzeko, indarrean dagoen plangintza baloratu eta hainbat aukera aztertu behar dira.

Altsasun indarrean dagoen planaren ezaugarriak direla eta, kudeaketan hainbat problematika dituzten sektore ugari daude, esaterako, Zelandi, Arkangoa-Mendizal, Lezalde, Dermau, Benta-Zelai, Ameztia edota Zuntaipe. Bertako bizilagunekin, edo beste sektore batekoekin, parte hartzeko saioak eginen dira.

2020-2021 ikasturtea

IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA: otsailaren 3tik 7ra



**ZELANDI
HERRI-ESKOLA**

Haur Hezkuntza
(3-6 urte)
Lehen Hezkuntza
(6-12 urte)
Eskolaldi
etengabea
A eta D
ereduak
Goiztiarren gela
Jangela zerbitzua
Eskolaz kanpoko
jarduerak
Arratsaldeko tailerrak

948 564 839 · Zelandi, 18 · 31800 ALTSASU

cpalsasu@educacion.navarra.es · zelandieskola.educacion.navarra.es/web/

ATE IREKIEN EGUNA: URTARRILAK 28



Sortzen



Aldabako San Sebastian ermita bobedako zartatuengatik itxita

Lakuntzarrak ez ziren ermitara erromerian joan, segurtasun arrazoiengatik ermita itxi baitzuten

LAKUNTZA

Aldabako San Sebastian ermitara ez joatean, neguko festetako aspaldiko ohitura batekin hautsi zuten lakuntzarrek atzo. Jose Antonio Apezetxea Escudero apaizak azaldu digunez, "badaezpadako neurria da, arriskua saihesteko". Apaizak azaldu digunez, "aurretik ere bazeuden zartadurak ermitako gangetan, baina joan den astean ermita San Sebastian egunerako prestatzera joan zirenean jabetu ziren zartadurak handiagoak zirela". Egoera ikusita teknikariei hots egin zieten eta arriskuak saihesteko San Sebastian eguneko elizkizuna herrian egitea erabaki zuen parrokiak. Horren berri eman zuten San Anton egunean izen bereko ermitan (hilerri ondokoa) egindako elizkizunean eta igandean. Hala ere, izan ziren 40 bat lakuntzar Aldabako ermitara joan zirenak, haiendako han urtero egiten dena lagun arteko topaketa dela uste baitute.

Apezetxeak azaldu digunez, konponbidea ganga kentzea eta teiladuraren zura agerian uztea izanen da, San Anton ermita dagoen moduan uzteko. Apaizak zail ikusten du lanak auzolanean egitea, "garai batean jendeak ofizioak bazekizkien..." Ziurrenik enpresa batek egingen ditu ganga botatzeko eta ondoren teilatuko zurari tratamendu bat emateko lanak. Horretarako, dirulaguntza eskatu edo diru bilketa egiteko aukera dute buruan parrokiako

kideek. Asmoa litzateke heldu den urterako ermita erabilgarri izatea.

Ermitaz

Aldabako San Sebastian ermita oinplano angeluzuzena du eta burualde zuzenak errematatzen du. Oinaldeko hormari beste gela estuago bat atxikita dago. Hormak harlanduzkoak dira, eta kanpoaldea luzituta dute. Barrualdean sekzio karratuko sei zutabe ditu, nabea lau zatitan banatzen dutenak. Bi leiho besterik ez ditu, eta horiek argiztapen eskasa ematen diote barrualdeari. Sarrera Epistolaren aldean dago, hegoaldeko orientaziorik onena bilatuz. Erdi-puntuko arku duen ate bat da, XVI. mendekoa bezalako hari molduratua duena. Nabearen oinaldean, zurezko goi-koru moderno bat dago. Teilatuen azpian sabai izuna dago aurreneko zatian, lunetozko bi ganga tarte ditu gero, eta burualdeak kanoi beheratua du. Tarteak erdi-puntuko arku fajoiek banatzen dituzte. Irudi titularra Lakuntzako parrokia-etxean dago gaur egun. Ricardo Aretak gogorarazi duenez, ermitaren azken zaharberitze lanak 1992koak dira.

Aldabarrak eta lakuntzarrak Etxarri berrira bizitzera joatera behartu zituzten. Baina eremu zabala babes gabe gelditzen zela irizita, guztiak Lakuntzara bueltatu ziren. Karlos II.ak Etxarri Aranatzan antzeko foruak eman zizkion 1365ean. + guaixe.eus



Neguko festak, kitto

Sansaastin festak larunbat eguerdian hasi ziren Lakuntzan. Pello Ruiz Bordegarai mendizaleak piztu zuen festei hasiera eman zien etxajua. Ondoren hutsik egiten ez duen hitzordua izan zen piperropil lehiaketa da. Epaimahaiak aurkeztutako bederatzia opilak dastatu ondoren aurreneko saria Ainhoa Etxarri eta Egoitz Arraizi eman zien. Bigarrenak izan ziren Rosarito eta Lourdes eta Kristina Katalin hirugarren sailkatu zen. Igande gauerdian, eguna hastearekin batera, plazan jarritako karparaino iritsi ziren Lakuntzako danborrada osatu zuten 60 danbor-joleek. 30. edizioa zuen danborradak eta aldamenen izan zuen herriko abesbatza eta Ozarki txaranga. Lakuntzako Pertza elkarteak Garikoitz Flores pilotua omentzeko baliatu du ekitaldia.

San Sebastian salda

Asteleheneko hotz handiarekin, meza eta geroko auzatean ermitako estalpean elkartu ziren olaztiarrek ardoa baino salda nahiago izan zuten txistorra, tortillak eta besteak bulkatzeko. Arrosariaoren ondoren, arratsaldean, txokolate jana izan zen ermitako estalpean. Eta iluntzean, frontoian, udalak auzatea eskaini zuen.



Hurrengo hitzordura arte

Sanantondar dorrobarrak larunbat goizean hildako kofradeen aldeko mezan eta erresponsoan elkartu ziren. Azken hori Francisco Lizarraga Senar kofradiako priorearen etxean errezatu zuten. Hura ordezkatzeko Angel Pueyo Lizarraga aukeratu zuten. Eguneko kontuen berri eman ondoren, sanantondarrak bazkaldu egin zuten.



UTZITAKOA

Banderarekin kezkatuta

San Anton igandean ospatu zuten Iturmendin. Kofradeak mezan elkartu ziren eta apaiz-etxean batzarra egin zuten. Ez da ez altarik ez bajarik izan. Francisco Sanchez banderadun berria da eta akta liburua, berriz, Alejandro Gabirondoren esku geldituko da zaintzeko. Kofradiaren estandarte ez dago ongi eta zaharberritu edo zer egin aztertzen hasi dira.



Bi sanantondar berri

Larunbat eguerdiko mezaren ondoren, sanantondar urdindarrak eliz atarian San Anton kantaita abestu zuten eta apaizak lau haizetara bedeinkapena egin zuen. Kofradiak bi kide berri ditu: Alberto Aldaz eta Ivan Gonzalez. Bestetik, Valentin Floresek eta Imanol Goikoetxeak maiordomoek Iñigo Etxeberriari eta Josu Lanasi utzi zieten lekukoa.



Beste liburu bat betetzera

San Anton kofradiako kideak larunbateko jarduerarekin euren bigarren akta liburua bete zuten. Horregatik, liburu berria enkargatu dute, artisau eran egindakoa. Gaur egun 93 dira sanantondar bakaikuarak. Roberto Ramos maiordomoak Mario Gastaminzari pasa ziola kofradiaren ardura. Eta azken horrek belero ardura Eduardo Urrestarazuren esku utzi zuen.



AURREMATRIKULA EPEA

Otsailaren 3tik 7ra



**herriaren eskola
ikasi eta bizi**

<https://etxarrikoeskola.educacion.navarra.es/web/cpetxarr@educacion.navarra.es> | Tel. 948567003

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 24

ALTSASU Gazte agenda.
Oxigenoa Euskarari 6000 metrotan ere dokumentalaren proiektzioa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Jubilatuta eta pentsiodunen batzarra.
Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinadorak deitutakoa.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Errepresioaren kontrako astea. Sakanako Gazteak Grebara! manifestazioa. Sakanako Gazte Asanbladak deituta.
19:00etan, Foru plazatik.

IRURTZUN Gazteendako lan eskubideen gidaren aurkezpena eta Hydroko grebaren arrazoia.
Irrurtzungo greba batzordeak.
19:30ean, Irurtzunen.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN Teatro Che y Moche konpainiaren
Oua Umplute El Funeral ikuskizunaren emanaldia.
20:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Mujercitas
gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Xabier Artiedaren
Everybody needs... Heroes! ikuskizunaren emanaldia.
22:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Errepresioaren kontrako astea. Bakarlariak: *Liberando el corazón* eta *Estrés Rapautorea*.
23:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 25

IRURTZUN Villabonara ibilaldia
eginen du Sakana Mendizaleak taldeak.
07:00etan, plazatik.

OLAZTI Abiadura irristaketa frogak. 2020ko Nafarroako indoor abiadura-irristaketa txapelketako I. Jardunaldia.
10:00etan, kiroldegian.

URDIAN Burundako mandazainak. Nicolas Arbizu Gabirondok liburua aurkeztuko du.
12:00etan, auzo gelan.

ALTSASU Errepresioaren kontrako astea. Prentsaurrekoa: **Ospa!** mugimenduak jasotako erasoei erantzuna.
13:00etan, memoria historikoaren orogarrarian (udaletxearen aurrean).

ALTSASU Mus txapelketa.
16:30ean, gaztetxean.

OLAZTI Zirika Zirkus
konpainiaren *Tren geltokia* ikuskizunaren emanaldia.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.
Papiroflexia tailerra.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Ados teatro
konpainiaren *Dublinese* antzezlanaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 26

ALTSASU Los fixies: Amigos secretos familiarterko filmaren emanaldia.
17:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Mujercitas
gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU 80 egunean zineforum
filmaren emanaldia.



ALTSASU Uholdeak, mahaira arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko erakusketa ibiltaria. Uhartre zentroa eta CAN fundazioa.
Urtarrilaren 10etik otsailaren 2ra. Asteleheneetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.

IRURTZUN Saisol sormen tailerraren erakusketa.
Abenduaren 26tik urtarrilaren 26ra. Pikuxar euskal txokoa.

19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 27


ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

OSTEGUNA 30

ALTSASU 9 meses de...
condena zineforum filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Puñaladas por las espaldas filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Gitarra audizioa.
19:15ean, kultur etxean.



ZORION AGURRAK



Amets Artieda Diez
Zorionak Amets!! Beste urte bat, gero eta guapoago!!! Noizko pastak? Egun ederra izan. Etxekoak



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazaren itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Olatzagutiako guraso eskola: Gurasoei zailak asko sortzen zaizkie, eta ongi ari ote diren galde-tzen diote euren buruari. Halakoez hizketatzeko antolatuta dute Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Man-komunitateak eta Akelarre ludotekako guraso eskola. Ilbeltzaren 31n, Otsai-laren 28an martxoaren 27an, apirilaren 24an eta maiatzaren 29an 09:30etik 11:30era ludotekan elkartuko dira. Izena emateko 948 467 662 telefonora host egin hilaren 27a baino lehen.

LEHIAKETA

12.elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRA

Santa Agedarako dantzak praktikatu nahi

dituzu? Altsasuko Inbostia-puntan jota, zortzikoa eta abar entseatzeko gelak daude.

Odol-emateak Etxarri Aranatzen: Ilbeltzaren 29an, 17:00etatik 20:30tara, www.adona.es/eu.

Bakaikutik Ezkabara: Bakaikutik kultura batzordea Ezkaba mendiko Alfontso XIII.a gotorlekura bisita gidatua prestatzen ari da. 1936ko estatu kolpearen ondoren kartzela gisa ibili zuten kolpistek. Maiatzaren bigarren erdialdean izanen da bisita gidatua. Hura behar bezala prestatzeko aurretik izena eman behar da udaltxean, edo ohiko tokietan. Ilbeltzaren 31ra arte dago epea.

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarterako bakarrak dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntze-txearen eraikina zahar-berritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Sakana Trenaren alde AHtrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatur egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AE-Kren@tsasi.euskaltegia.com duzu informazio guztia.

www.iragarkilaburak.eus

EZKONTZAK

• **Andrea Goikoetxea Urdiain eta Mikel Lizarraga Galarza,** ilbeltzaren 18an Urdiainen
• **Mariana de Jesus Sarmiento Sarmiento eta Mateo Santamaria Sarasola,** ilbeltzaren 18an Olaztin


HERIOTZAK

• **Juan Miguel Ihabar Mendinueta,** ilbeltzaren 18an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 24




Hego haizeak eta eguzkiaren presentziak, nahiz eta etengabekoa ez izan, tenperaturak epeltzea ekarriko du.

Larunbata, 25




Lainotua egongo da egun guztian zehar, eta noizbehinka zaparradaren bat bota dezake. Gainera, hego haizea zakar ibiliko da.

Igandea, 26



Ostare handiak izango dira gurean igandean, eta tenperaturek nabarmen egingo dute gora eguzkiaren ondorioz.

Astelehena, 27



Hego haizea izango da berrito protagonista eta zakar joko du egunaren parte gehienetan. Ez da prezipitaziorik egongo.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrak iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

Guaixeren 25. urteurrenaren Batzen gaituena kit-ak salgai

POLTSOA + TXAPAK + BOLIGRAFOA

Bazkideendako 4 € / Gainontzekoendako 6 €

| Irurtzun | Arbizun |
|------------------------------------|-------------------------|
| Pikaxar euskal txokoan | Arbizuko Eko kanpenean |
| Martxuetan liburu-dendan | Altsasun |
| Etxarri Aranatzen | Arkatzen liburu-dendan |
| Kaxata liburu denda | Liburunda liburu-dendan |
| Beleixe Irratian (9etatik 12etara) | AEK-ko euskaltegian |

OROIGARRIA

Jose M^a Martínez de Esteban Enekoitz Mendiola Barandalla

Gukin betiko yonko zarie.

Etxarri Aranazko 72ko kintuek

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Osasuna Magnak errebantxa hartu zuen

ARETO FUTBOLA Talde berdeak 6 eta 2 irabazi zion Santa Colomari. Bihar Cartagena du aurkari

Santa Coloma taldeak Errege Kopatik kanpo utzi zuen aurreko asteartean Osasuna Magna Xota. Eta bizitzaren karanbolak, ostiralean atzera ere Santa Coloma taldearen kontra aritzea egokitu zitzaizen nafarrei, baina kasu honetan ligako partidari.

Erasora atera ziren hasieratik Osasuna Magna Xotako jokalaririk. Rafa Usinek penaltiz, eta Araçak, Roberto Martilek eta Dani Saldisek sartutako golei esker, jokoz kanpo utzi zuten Santa Coloma. Baina bi gol egin zituen talde kataluniarrak. Hala ere, ongi eutsi zioten berdeek eta Araçak eta Bynhok sartutako golekin 6 eta 2 irabazita, konfiantza berreskuratu zuten jokalaririk berdeek. "Gu izan gara berriro, ez dago besterik. Aurreko egunean, Kopan, ez ginen gu izan. Eta hau ez da aitzakia, baina taldearen inguruan dabilzan kontu askok ez diote taldeari inolako mesederik egiten" adierazi zuen Imanol Arregik.

Movistar Inter taldea da lehen mailako liderra (44 puntu). Osasuna Magnak gora egin du eta 5. da (35 puntu). Bihar, larunbata, sailkapenean 10. postuan dagoen Jimbee Cartagena taldea izango du aurkari talde berdeak 13:00etan, Cartagenan (GOL).

Nafarroako Abiadura Txapelketa bihar Olaztin

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketako I. Jardunaldia hartuko du Olaztiko Erburua kiroldegia bihar, larunbata, goizeko 10:00etatik aurrera. Ehundaka irristalari ariko dira

Nafarroako Abiadura Iristaketa Indoor Txapelketa bihar hasiko da Olaztin. Hain zuzen ere, aipatu txapelketako I. Jardunaldia hartuko du bihar, larunbatean, Olaztiko Erburua kiroldegia. Txapelketa Nafarroako Iristaketa Federazioak antolatu du, baina lehen jardunaldi honetan Sakana Patin Taldea ibiliko da antolakuntzan, eta Olaztiko Udaren laguntza izanen du ekimean. Horrela, Olazti irristaketaren festa izanen da. Nafarroako hainbat irristaketa klubetako ehundaka irristalari espero dira, tartean Sakana Patin taldekoak.

Kategoria guztiak

Goizeko 10:00etan hasiko dira irristalariak lanean. Kategoria ezberdinetako linea lasterketak eta taldekako errelebo probak egongo dira jokoan. Kategoria guztiak lehiatuko dira: mini, aurrebenjamin, benjamin, ki-muak, haurrak, gazteak, juniorrak eta seniorrak. Hasieran lineako probak jokatuko dira eta, ondoren, erreleboak.

Irristaketa sustatzea, Sakana Patinaren erronka

Irristaketaz gozatzeko primario aukera eskainiko du bihar Erburua kiroldegia, Nafarroako puntako irristalariak ariko



Irristalari sakandarrak aurreko urteko txapelketan, parte hartzeko zain. SAKANA PATIN

baitira lanean, tartean Sakana Patin taldekoak. Ikusgarria da irristalariak hartzen duten abiadura eta patinen gainean duten trebetasuna. Gurean irristaketa sustatzea, hori da Sakana Patin taldearen helburuetako bat, irristaketa probak bulkatzearekin batera. Sakanan irristalari asko daude eta pista bat egiteko beharra ikusten du Sakana Patin taldeak; ibarrean irristaketarako araudizko pista bat sortzea da aspaldi aldarrikatzen duena, irristalariak baldintza egokietan entrenatu ahal izateko.



TRAIL Uharteko Arakilen mendian korrika despiditu zuten urtea

Uharteko Arakilgo Aralar Mendi taldeak II. San Silvestre Traila antolatu zuen Itxesi parkean, herritarrek urtea kirola eginez agurtzeko. Txikien mailan 30 neska-mutiko aritu ziren, eta 14 urtetik gorako mailan, aldiz, 60 korrikalarik osatu zuten San Vicenteko Bira 4.500 metro). Ondoren auzatea eta txokolate jana izan zen, giro bikainean.



Giro bikaina izan zen Uharteko. ARALAR MENDI

SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK. 9. JARDUNALDIA

IGANDEAN DANTZALEKUN (ALTSASU)

10:00 Lagun Artea 09 - Etxarri-Danbolintx.

10:00 Sutegi - Altsasu A

11:00 Etxarri-Hartzabal - Altsasu B

11:00 Etxarri-Epele - Altsasu Ci

Atsedean: Lagun Artea 08

Kimuak etzi Altsasun

Sakanako Futbol Topaketan kimuen mailako 9. jardunaldia jokatuko da igandean Dantzalekun. Benjaminen mailan asteburu honetan ez da jardunaldirik jokatuko.

ELOMENDI TXAPELKETA

13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Basati 6-0

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 33

3 Zaldua 28

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Z/G Zaldua - Roca (Lekunberri)

Zaldua Rocaren kontra

Sailkapenean hirugarrena da Arakilgo Zaldua, eta bihar Roca du aurkari.

FUTBOL PREFERENTEA

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Huarte B - Lagun Artea 1-1

Etxarri Aranatz - Beriain 1-4

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano 30

3 Lakuntzako Lagun Artea 28

15 Etxarri Aranatz 14

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:15 Etxarri - San Jorge (San Donato)

IGANDEAN

16:30 Ilunberri - Lagun Artea (Lardin)

Berdindu eta galdu

Hotza eta euriari aurre egin behar izan zieten gure taldeek. Oso partida lehiatua jokatu zuten Huarte B-k eta Lagun Artea. Unai Bakaikoa Lagunen aldeko gola sartu zuen, baina bigarren zatian Huartek berdintzea lortu zuen. Bestalde, Etxarri Aranatzek Beriain taldea hartu zuen etxean. Pare pare aritu ziren bi taldeak. Beriain aurreratu zen eta Etxarri azkenera arte saiatu zen, baina 1 eta 4 galduta despiditu zen lehia.

ERREGIONALA GIZONAK

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Universidad de Navarra 0-3

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Universidad de Navarra 37

11 Altsasu 10

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

11:30 Aurrera - Altsasu (Leitza)

Altsasuk Leitza jokatuko du

Altsasuk Universidad de Navarra liderra hartu zuen. Lehen zatian bikain aritu zen Altsasu, dominatu zuen, baina ez zituzten gol aukerak borobildu. Tamalez, Altsasuren atera iritsi zen hiru alditan gola sartu zuen liderrak.

ERREGIONALA EMAKUM.

17. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Lourdes 2-1

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon 44

7 Altsasu 27

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:15 Altsasu - Izarra (Dantzaleku)

Altsasuren garaipen garrantzitsua

Lourdes taldea aurreratu zen, baina June Garcia de Albenizek eta Janire Lopezek sartutako golekin irabazi zuen Altsasuk.



Zabaleta, Jaka, Ezkurdia eta Martija asteazkeneko material aukeraketan. ASPE

Sakandarren arteko lehia estua espero da bihar

PILOTA Binakako hasierako 10. jardunaldian Ezkurdia eta Martija Jakaren eta Zabaletaren kontra ariko dira bihar, larunbata, Markina-Xemeinen (18:00, ETB1). Borroka estua espero da, lehenek seigarren puntua nahi dutelako eta bigarrenek bederatzigarrena

Binakako hasierako ligaxkako 9 jardunaldi jokatu, Jakak eta Zabaletak 8 puntu dituzte eta 5 puntu dituzten 4 biko daude: Artola-Imaz, Ezkurdia-Martija, Altuna III.a-Ladis Galarza eta Laso-Arbizu. Beraz, Jaka eta Zabaleta lider sendoak dira, eta bigarren postua oso garesti dago. Irribarria-Rezustak 4 puntu dituzte, Olaizola-Urrutikoetxeak 3 eta Bengoetxea VI.a -Mariezkurrenak 1. Hasierako ligaxka despeditzeko 4 jardunaldiren faltan, oraindik asko dago erabakitzeke.

Asteburu honetan 10. jardunaldia jokatu da, eta pilotari sakandarrak elkarren kontra lehiatuko dira larunbatean Markina-Xemeinen (18:00, ETB1). Jose Javier Zabaletak eta Erik Jakak bikote oso orekatua osatzen dute, bikaina. Erik Jakak gora egiten jarraitzen du eta pilotaririk onenen aurka jokatzeko moduan dagoela erakusten ari da. Eta Etxarregoia egungo atzelari onenetakoa da. "Lan ona egiten ari gara biok, elkar ondo hartzen ari gara eta horrek konfiantza hartzeko eta joko hobetzeko asko laguntzen du" azaldu du Jakak. Beraiek dira favorito nagusiak biharko partidarako, baina Binakakoan ez dago arerio errazik.

Errespetu handia elkarri

Ezkurdia eta Martija Buñuelen porrot handia jasotzetik datoz. Arbizuko aurrelaria gripearen ondorioak sufritzen aritu da azken bi jardunaldietan eta nabaritu da. Sakandarrek 5 puntu dituzte eta seigarrena lortu nahi dute, Binakako finalerdietarako sailkatzeko bidean puntu oso garrantzitsua litzatekeena. Baina jakina, Jakak eta Zabaletak gauzak oso zail jarriko dizkiete, fisurarik gabeko lider izaten jarraitu nahi dutelako. Printzipioz faboritoak dira liderrak, baina Ezkurdiak eta Martijak konfiantza handia dute, Buñuelen gertatutakoari buelta eman nahi diote eta, beraz, estu-estu egongo da Markinan larunbatean jokatu den partida. Pilota aukeraketa asteazkenean egin zuten, eta larunbaterako prest eta gogotsu daudela adierazi zuten bi bikoez, sakandarren arteko derbia izango den partidan.

Gainontzeko partidei dagokienez, Baikor "kirol erabakiak" argudiatuz Bengoetxea VI.a Victorrengatik ordezkatzeko erabaki du. Horrela, Victor eta Mariezkurrena II.a Artolaren eta Imazen kontra ariko dira, ostiralean, Hendaian (ETB1). Larunbatean Olaizola II.ak eta Urrutikoetxeak

Laso eta Albisu izanen dituzte aurkari Labriten (17:45) eta igandean, Tolosan, Irribarriak eta Rezustak Altuna III.aren eta Ladis Galarzaren kontra jokatu dute.

Jaka eta Zabaleta, ikusgarri

Igandean Jakak eta Zabaletak Altuna III.a eta Ladis Galarza izan zituzten aurkari Astelenan, eta beste errezitaldi bikain bat eskaini zuten Lizartzakoak eta Etxarregoak pilotaren katedralean. Zabaleta ikusgarri aritu zen atzeko koadroetan, goitik behera agindu zuen eta pilota gozo-gozoak utzi zizkion Erik Jakari. Lizartzakoak bikain aprobetxatu zituenak. Aldiz, Jokin Altunak eta Ladis Galarzak ez zuten beren maila eman eta, azkenean 22 eta 9 gailendu ziren Jaka eta Zabaleta.

Bestalde, ostiralean Buñuelen Ezkurdiak eta Martijak ez zuten bere egunik onena izan. Bai, ordea, Irribarriak eta Rezustak. Aspaldiko moduan bezala jokatu zuten gipuzkoarrek. Irribarriak min handia egin zuen bere erremateekin, eta atzeko koadroetan Rezustak Martija dominatu zuen. Lehen zatian ongi eutsi zieten sakandarrek, baina gutxika euren erresistentziak behera egin zuten eta Irribarria Rezusta gailendu ziren, 22 eta 9.

Udane Bergarak galduta

Asteburuan hasi zen Binakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketa, Ataunen. Lehen kanporaketan Arantxa Arratibeak eta Aisha Etxeberriak 18 eta 13 irabazi zieten Udane Bergara altsasuarrari eta Alaia Ruiz de Infanteri.

SASKIBALOA CBASK- Jatormanek liderra estutu zuen

Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen diren Gizonezkoen Autonomien Arteko 2. mailan, CBASK-Jatormanek Club Baloncesto Cenicero liderra hartu zuen Zelandin. Altsasuko taldeak ongi eutsi zion liderrari, baina, tamalez, 3 punturen aldeko diferentziagatik galdu zuen azkenean, 60 eta 63.

Club Baloncesto Cenicero jarraitzen du lider (23 puntu) eta CBASK-Jatorman 10. postura jaitsi da (16 puntu). Larunbatean 14. jardunaldia du jokoan CBASK-Jatorman taldeak eta atzera ere etxean ariko da, Zelandin, sailkapenean 6.a den Errioxako CB Sagnacio taldearen kontra, 18:00etan.

MENDIA Billabonara Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest du ilbeltzeko irteera. Billabonan barna egingo dute mendi martxa, igandean, ilbeltzaren 26an. Autobusa goizeko 7:00etan aterako da Irurtzundik. Ohiko tokietan eman behar da izena, herrietako arduradunei esanez. Bestela, 639 117 631 telefonora hots egin daiteke, eta autobusean tokia egonez gero, izena eman.

EuroCupeko final zortzirenak gertuago

SASKIBALOA Naiara Diez kapitainaren Lointek Gernika Bizkaiak 91 eta 73 irabazi zion KSC Szekszard taldeari Gernikan jokatuako EuroCupeko final hamaseirenetako joaneko partidaren. Itzuliko partida asteazkenean jokatu dute, Hungarian

Lointek Gernika Bizkaia saskibaloitako EuroCup txapelketako final hamaseirenetako modu ezin hobean abiatu ditu. Asteazkenean Gernikako Maloste pabilioian Hungariako KSC Szekszard taldearen kontra jokatuako joaneko partidaren 91 eta 73 irabazi zuten Mario Lopez entrenatzailearen jokalariek, Hungariako taldeari neurria bikain hartu eta gero. Horrela, hurrengo asteazkenean, ilbeltzaren 29an Hungarian jokatu den itzulera partidarako 18 puntuko errenta garrantzitsua lortu dute alde euskaldunek, historia egiten jarraitzeko.

Kapitainak taldea suspertu zuen Ohi bezala, sekulako giroa zegoen leporaino beteta zegoen Malosten, eta Marea Granateak euskal taldea airean eramane zuten. Hasieran Lointek Gernika aurreratu zen, baina parez pare ibili ziren bi taldeak eta 20 eta 18 despeditu zen lehen laurdena. Bigarren



Naiara Diez, asteazkenean. LOINTEK GERNIKA

laurdenean Naiara Diez kapitain altsasuarrak taldeari airea eman zion jarraian bi hiruko sartu eta gero. Gernikarrek zehaztu zuten partidaren tempoa, eta 46 eta 32 aurreratuta despeditu zuten bigarren laurdena. Atsedendia

eta gero, hirugarren laurdena zirrargarria izan zen eta 65 eta 48ko aldea atera zuten bizkaitarrek. Eta azken laurdenean eromena barreiatu zen Malosten Gernika Lointek ikusgarri batek KSC Szekszard taldea 91 eta 73 menderatu zuenean. Askotan KSC Szekszard taldeak guztiz gaituta ikusi zuen bere burua. Garaipen handia izan zen Lointek Gernikarena. "Guztiak bikain aritu dira, 10ean, jokalaria, teknikariak eta Marea Granatea. Garaipen hau denena da" azaldu zuen Mario Lopez entrenatzaileak partida bukaeran.

Itzuliko partida gogorra espero da Pozik, oso pozik dago Lointek Gernika, baina asteazkenean itzulerako partida jokatu dute Hungarian, eta ez dute erlaxatu nahi, partida gogorra aurreikusuten dutelako. Hungariako giro beroa ez dute izanen eta KSC Szekszard taldea hazi egingo da etxean.



Igor Arrieta. UTZITAKOA

Igor Arrieta Munduko Ziklo-kros Txapelketara

ZIKLO-KROSA Junior mailako munduko ziklo-kros errankinean 11. tokian dago uharterra

Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarragak Munduko Ziklo-kros Txapelketan borobilduko du ziklo-krosean egin duen denboraldi paregabea. Suitzako Dübendorf hirian jokatu dira Ziklo-kros Mundialak otsailaren 1ean eta 2an, eta nahiz eta Espainiako Txirrindularitza Federazioak oraindik bertan ariko diren txirrindularien zerrenda ofizialik ez argitaratu, uharte arakildarra bertan ariko dela jakina da.

Igor Arrietak Espainiako Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen duela bi aste, Pontevedran. Aurretik Nafarroako Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen eta beste hainbat proba, eta Lezaman jokatuako Euskadiko Ziklo-kros Txapelketan bigarrena izan zen. Hori izan zen estatu mailako ziklo-krosean aritu den proba guztietan irabazi ez duen bakarra.

Munduko Kopako Nommayn 19.a sailkatu zen Arrieta

Egun, Ziklo-kroseko junior mailako munduko errankinean 11. tokian dago Igor Arrieta. Mundiala prestatzeko, asteburuan Munduko Koparako baliagarria den 8. lasterketan aritu zen, Nommayn (Frantzia). Thibau Nys izan zen txapelduna, eta Arrieta 19. tokian sartu zen, 2 minutura.

Aragoitik 5 domina etxera

TAEKWONDOA Ilbeltzaren 18an Aragoiko Aragoiko Taekwondo Open Txapelketa jokatu zen. Altsasuko Bargagain Taekwondo eskolako 8 kide aritu ziren: Hugo, Huda, Joseba, Danel, Zoe, Rania, Leire eta Aiala. Guztiek lan bikaina egin zuten eta 5 domina etorri dira. Hugok urrezko domina lortu zuen, Hudak eta Josebak zilarrezkoa, eta Danelek eta Zoek brontzezkoa.



BARGAGAIN

"Momentua bizi dut: Irlandako Kopako biharko finala dut buruan"

IÑIGO ZABALO OIARBIDE BALLINCOLLIG BASKETBALL TALDEKO JOKALARIA

SASKIBALOA Iñigo Zabalo altsasuarra Basket Navarrako jokalaria izan zen eta egun Irlandan dago. Bihar Irlandako Kopako finala jokatuko du bere taldearekin

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iñigo Zabalo Oiarbidek (1996, Altsasu) une gozoak bizi ditu. Bihar, Ballincollig Basketball Club bere taldearekin Irlandako Kopako finala jokatuko du, Carlow Basketballen kontra.

Noiz hasi zinen saskibaloian?

Altsasuko CBASK taldean, 8 edo 9 urterekin. Pilota eta irristaketa ere egiten nituen, baina azkenean saskibaloia aukeratu nuen. Base postuan jokatzen dut. Normalean jokalaria baxuenak izaten gara baseak, eta joko antolatzaile lanetan ibiltzen gara, partidari erritmoa jartzen.

CBASK-en ondotik Ardoira eta Basket Navarrara egin zenuen salto.

16 urte nituela Iruñera joatea proposatu zidaten, beka batekin. Han Basket Navarrako entrenamendu batzuetan egon nintzen, baina Eva Ligan aritu nintzen, Zizurko Ardoi taldearekin. Basket Navarrara zuzenean joatea salto handiegia zen. Iruñean 5 urte eman nituen guztira, eta horietatik 3 profesional, Basket Navarrarekin. 18 urterekin, Unibertsitatean hasi nintzenez kontratua egin zidaten Basket Navarran.

Zer moduz uztartzen dira Unibertsitateko ikasketak saskibalo profesionalarekin?

Oso zaila da. Basket Navarran egunero entrenatzen genuen, hortaz atera kontuak. NUPen ADE ikasketak egiten hasi nintzen, Enpresa Zuzendaritza. Zerbait ikasteagatik hasi nuen karrera, eta azkenean motibazio falta hori eta egunero entrenatzeak, etxera beti nekatuta joateak... ez zuen laguntzen. Azkenean UNED-en, Urrutirako Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean hasi nintzen. Hor hobeto, baina oraindik 2. kurtsoan nago, beste erritmo batean.



Iñigo Zabala Oiarbide, Ballincollig taldeko partida batean. UTZITAKOIA

Eta zer moduzkoa izan zen Basket Navarra taldeko ibilbidea?

3 urtez egon nintzen profesional Basket Navarran eta lehendabiziko bi urteetan ongi, baina azken urtea oso txarra izan nuen: lesio asko nituen, eta ez nuen saskibaloiaz disfrutatu. 2017ko uda hasieran aipatu zidaten kontratua berri egongo zidatela, baina azkenean abuztuan ezetz esan zidaten. Beste talderen bat bilatzeko denborarik ez ze-

goen, ekainean taldeak dagoneko eginak baitaude.

Eta zer egin zenuen?

Suhiltzaile izatea izan dut beti buruan, eta oposizioak prestatu nituen, 8 hilabetez. Saskibaloia alde batera utzi nuen, nire orkatiletatik errekuiperatzeko. Urte sabatiko bat hartu nuen, errekuiperatzeko. Eta bitartean, oposizioak prestatu nituen. 2018an izan ziren oposizioak, Altsasuko festetan, irailean.

Zer moduz joan ziren?

Oso zaila da halako oposizioak ateratzea. Oso lanpostu gutxi ateratzen dituzte, eta hautagaien artean maila ikaragarria dago. Gutxienez muturra sartzea lortu nuen. Oposizioak baino bi aste lehenago, Irlandako Sligo All-Stars Basketball Clubetik deitu ninduten. Basket Navarrako taldekide ohi batek Irlandan eman zuen urte bat, eta bere bidez enteratu ziren ni libre nengoela eta hortik iritsi zitzaidan Irlandako saskibaloiko 2. mailan aritzeko proposamena. **Irlandara joateko zalantzarik izan ote zenuen?**

Nire oposizioak errespetatzea eskatu nien, eta Irlandako 2. mailako saskibalo ligaren hasitako zegoenean etorri nintzen. Sligo herri txiki bat da. Taldea oso gaztea zen, baina denboraldi nahiko ona egin genuen. Orduan Corkeko Ballincollig Basketball Clubetik deitu zidaten eta bertara joan nintzen.

Hortaz, aurten Ballincollig taldean zabilta.

Bai, hau ere 2. mailako taldea da, baina klub indartsuagoa da. Irlandan saskibalo maila ez da horren altua. Gurean oso espezializatua daude jokalarien rola; Irlandan irekiagoa da saskibaloia, erritmo gehiago du, korrika gehiago egiten da... anarkikoagoa da. Hasieran kosta egin zitzaidan aldaketara egokitzea, baina ongi moldatu nintzen.

Zer moduzkoa da Corkeko bizimodua? Gustuko duzu?

Gure bizimoduaren nahiko antzekoa da. Lanetik aterata pubetara joaten dira, lagunekin elkartzera. Garagardoari lotutako beste kultura bat dago hemen. Gustura nago, azkenean bizpahiru egunetan entrenatzen dugu, eta hori da onena. Ingelesa ikasi eta beste gauza batzuetan aritzeko tartea badut.

Ballincollig taldea 2. mailako ligan zer moduz doa?

Oso ongi. Aurten taldearen helburua lehen mailara igotzea zen, eta bide onean goaz, momentuz jokatuko ditugun partida guztiak irabazi baititugu. Irailean hasten da liga eta martxoaren 14an bukatzen da. Gauzak horrela segituz gero, baliteke hilabete batean matematikoki liga irabaztea. Andre Nation estatubatuarra oso ona da, eta badaude jokalaria batzuk Irlandako selekzioan aritzen direnak. Oso ondo gabilta, eta talde giroa ona da. Ni

eta Andre Nation gara taldeko profesional bakarrak, gainontzeko guztiak zaleak dira, borondatez jokatzen dutenak. Hori ere lehen mailan gertatzen da. Bitxia da. Kanpoko jendea taldeari maila pixka bat emateko ekartzen dute, eta gainontzekoak zaleak dira.

Badirudi Irlandako Kopan ere bikain zabilzate.

Bai, ilbeltzaren 11n Irlandako Kopako finalerdiak irabazi genituen eta final handia Dublinen jokatuko dugu larunbat honetan, ilbeltzaren 25ean, 2. mailakoa den Carlow Basketball taldearen kontra. Printzipioz gu faboritoak gara, baina finalak partida batera jokatzen dira. Baliteke egun txarra izatea eta gauzak konplikatzea, baina espero dugu ondo jokatzea eta irabaztea.

Basket Navarran zeudenean profesional izatearen ardura handiagoa zen Irlandan baino?

Zalantzarik gabe. Basket Navarran amets hori nuen, egunero pixkat hobeagoa izatearena, baina lesio asko izan nituen eta, horretaz gain, zure entrenatzailearen konfiantza izan behar duzu, baita taldearena ere, eta kontaktu asko izan behar dituzu. Lesioak tarteko, azkeneko urtean egunero esnatzen nintzen minarekin. Eta horrek erretzen du, gehiago mentalki fisikoki baino. Gertutik ikusi dut kirolari profesionalen bizitza nolako den. Kanpotik politago ikusten da: lehenengo mailako jokalariek dirua irabazten dutela, arrakasta dutela, sekulako bizitza. Baina errealitatea beste gauza bat da. Azkenean egunero zure gorputza %100ean astintzea ez dago oso ondo ordaindua.

Irlandan jarraituko duzu?

Ballincolligen jarraitzeko aukera daukat, baina aitortu behar dut ez dakidala zer egingo dudan. Beste herrialderen batera joateak ere ilusionatzen nau, edo beste hizkuntza bat ikastea... Momentua bizitzen ari naiz. Biharko Kopako finala dut buruan. Esan didate Kopa bat irabazi ostean igual hiru egun ematen dituztela ospatzen. Ea horrela den eta ezagutzen dugun (kar, kar).

"TALDEAREN HELBURUA LEHEN MAILARA IGOTZEA ZEN ETA BIDE ONEAN GOAZ"

Jon Gilek Lizarten ekingo dio denboraldiari

TXIRRINDULARITZA Jon Gil txirrindulari lakuntzarrak afizionatuen mailan debutatuko du aurten, Lizarte taldearekin. Larunbatean 2020 denboraldiko aurkezpena egin zuen Manolo Azkona presidente duen taldeak

Larunbatean Manolo Azkonak sustatutako Galibier Kirol Elkartek 2020ko bere bi taldeen aurkezpena egin zuen Orkoiengo Andia hotelean. Aurten 15 urte bete dituen afizionatuen mailako Lizarte taldeari, sortu berri den Kern Pharma talde profesional kontinentala gehitu zaio, azken hau Pablo Urtasun kirol zuzendariaren aginduetara.

Aipatzekoa da afizionatuen mailako Lizarte taldean aurten Jon Gil Velaz lakuntzarrak (2001) debutatuko duela, Ermitagaña taldetik amateur mailara igo eta gero. Bera izango da taldeko sakandar bakarra, Lizarteko bajetako bat Asier Ormazabal baita. Ziordiarrek erretiroa hartu du.

20 txirrindulari

Jon Armendariz eta Haritzer Medina dira Lizarteko kirol zuzendariak eta 20 txirrindulariz osatutako talde oso gaztea dute euren esanetara. Manolo Azkona presidenteak azaldu zuenez, bi



Jon Gil, ezkerrean, taldekide batekin, Lizarteko aurkezpenean. UTZITAKOIA

taldeen helburuak berberak dira, "talde bezala urtetik urtera hazi". Halaber, Kern Pharma taldearekin afizionatuei aurrera egiteko aukerak eta baliabideak eman nahi dizkietela gaineratu zuen presidenteak. "Lizartekoek ba-

dakite lan ona eginez gero, eskailera bat igo eta profesional izateko aukera hor dutela" nabarmendu zuen. Eta denboraldi ona egingo dutela uste du Azkonak "bai profesionalen kategorian eta baita amateurren ere".

"Afizionatuen maila berriari ongi moldatzea da helburua"

JON GIL VELAZ LIZARTEKO TXIRRINDULARIA

Zer moduz hasi zara Lizarte taldean? Juniorretatik afizionatuetara dagoen saltoa handia da?

Famak hori dauka. Azkenean 80 kilometroko lasterketak egitetik 120 kilometroko lasterketak egitera pasatzen zara. Abiadura handiagoa denez, lasterketak gogorragoak egiten dira eta aurreko urtearekin alderatuz aldea badago. Entrenamenduei dagokienez, azkenean bizikleta gainean ordu gehiago pasatzen dira. Beraz, bai, pausu garrantzitsua da.

Zein da aurtego denboraldiko helburua?

Maila berriari, afizionatuen mailari ongi moldatzea. Hori bereziki.

Jakina, Lizarteko taldekideei laguntzea eta taldeak dituen helburuak aurrera eramatea hori ere egiteko garrantzitsua da. Eta horretaz gain, nire maila hobetzea, eta lasterketa onak egin eta postu onak lortzea.



LIZARTE

Pozik zaude bizikletan jarraitzeko aukera duzulako?

Bai, oso pozik. Azkenean nire bizitzaren zati bat kirol honi eskaintzen diot, arraroa irudituko zitzaidan txirrindularitzan ez jarraitzea (kar, kar...). Aurreko urteko helburu nagusia afizionatuetara pasatzea zen, lortu dut eta horregatik pozik nago.

Lizarte taldearen aurkezpena egin duzue, baina noiz izango duzu lehendabiziko lasterketa? Edo oraindik ez dizuete egutegirik pasa?

Normalean denboraldia otsailaren bukaeran hasten da, eta uste dut aurten Zumaian edo Ereñon hasiko dudala denboraldia. Dena den, oraindik ez daukat egutegi finkorik, baina otsailen jakingo dut gutxi gorabehera hasierako egutegia.

Animo eta zorte on!

Mila esker zuen arretarengatik!



EUSKADI-ORBEA FUNDAZIOA

Marea laranjaen buelta

TXIRRINDULARITZA Euskadi Fundazioak salto ederra eman du eta aurten UCI Pro Team taldea izango da, talde kontinental profesionala. UCI-ren bigarren mailan lehiatuko da, Euskadi-Orbea Fundazioa izenarekin. Marea laranja bueltan da.

Asteartean izan zen taldearen aurkezpena, San Mamesen. Euskadi Fundazioko Mikel Landa presidenteak azaldu zuen oso kontentu zegoela. "Aurkezpen askotan egon naiz eta aspalditik

ez nuen horrenbesteko ilusioa eta pasioa ikusten. Taldeak pausu handia eman du eta taldea hazten laguntzen ari zaigunei oso eskertuta nago". Jorge Azanza altsasuarrak fundazioko ibilbide berri honetan jarraituko du zuzendari lanetan. Bere aginduetara 20 txirrindulari izanen ditu, eta helburua, ahalik eta lan hobereana egitea da, Espainiako Vueltako gonbidapena jasotzeko. "Ilusio eta gogo asko handia du taldeak, eta lan ona egin nahi dugu".



Xabier Artieda ikuskizunaren une batean. UTZITAKOA

Artiedaren egunerokotasunezko heroiak berriz agertokira

Xabier Artieda etxarriarrak 'Every body needs Heroes' ikuskizuna egingen du gaur, 22:30ean, Olaztin

ETXARRI ARANATZ

Madriren interpretazioa ikasten ari zela Xabier Artieda aktoreak "bere kabuz" zerbait egiteko gogoia izan zuen: "Bakarrik eszenatokian egotea eta nire lana prestatzea". Orduan, lagun batekin inprobisazioak egiten hasi zen. "Nondik eta nola izan zitekeen". Handik gorputz antzerki komedia bat atera zen: Every body needs Heroes' ikuskizuna. Gaur, ostirala, 22:30ean, Olaztiko kultur etxean izanen da.

Artieda gorputz antzerkian espezializatuta dago. Nafarroako Antzerki Eskolan ikasi zuen, eta, ondoren, Madrilera joan zen. Antzerkian zein telebistan lan egin du. Hala ere, Every body needs heroes! bere lehengo ikuskizun propioa da. Izenburuak dioen bezala heroi batzuei buruz hitz egiten du ikuskizunak: "Baina heroi izatea ez da erraza, eta beti ez

zaizkie gauzak ongi ateratze". Hortaz, beti hausnarketa bat dago: "Gu garena gara. Ez dugu heroiak izan beharrik edo ezer izan beharrik. Gu izan behar gara, eta horrekin pozik egon".

Gorputz antzerkia

Hitz gabe gauzak adieraztea eta ikuskizun bat egitea da gorputz antzerkiaren edo antzerki fisikoaren erronka nagusia. "Flextazo" bat izan zuen Artiedak antzerki estilo honekin. Komunikabide berri bat aurkitu zuen Artiedak ikuskizuna prestatzen. Dena "mugimenduaren eta gorputzaren bidez" egiten du. "Energia kontua da, presentzia kontua". Komedia denez "jendeak ongi pasatzeko" zerbait "freskoa eta barregarria" izan behar dela dio. Laugarren pareta momenturen batean ere apurtzen dela esan du Artiedak, hau da, publikoaren harremana ere bada goela.

Euskal kulturaren erronkei erantzuten

'Hari izpia hartzen. Euskal kulturaren erronkak Nafarroan' jardunaldiak egingen dute gaur, 09:00etatik aurrera, Iruñeko Kondestable jauregian. Euskal kulturaren eragileek, euskara teknikariek, politikariek eta abarrek parte hartuko dute

SAKANA

Euskal kulturaren transmisioan "eten bat" zegoela ikusita hainbat kezka dituzte Nafarroako euskara teknikariek, tartean Castillo Suarez Sakanako Mankomunitateko euskara teknikariak. "Kezka" horiei buruz hausnartzeko 'Hari izpia hartzen. Euskal kulturaren erronkak Nafarroan' jardunaldia egingen dute gaur, 09:00etatik aurrera, Iruñeko Kondestable jauregian. Jardunaldiak interesa piztu du, izan ere, 90 lagunendako toki zegoen eta guztiak bete dira.

Nafarroako euskal kulturaren eragileak bilduko dira gaur Iruñeko Kondestable jauregian Nafarroako hainbat toki-entitateetako euskara teknikarien sareak, Elkar fundazioak eta Karrikiri elkarteak antolatutako jardunaldian. Castillo Suarezek azaldu duenez, "erronka pila bat daude", eta horiek "antolatu" beharra dute. Hortaz, jardunaldian hiru gai nagusi landuko dituzten euskal kulturaren erronkak Nafarroan gogoeta gidatua: transmisioa, ikusgarritasuna eta kontsumoa.

"Gu euskara teknikariak gara eta udal batzuetan badaude kultur teknikariak edo dinamizatzaileak, baina gure lana berez ez da kultur programazioa egitea.



Jardunaldietako antolatzaileak aurkezpenean. UTZITAKOA

Eskualde txikietan, aldiz, denetarik egiten dute". Horregatik, esperientzia desberdinen kasuak ikusteko aukera izango dute gaur ere: "Gure funtzioa eta besteena zein izan beharko zen ikusi behar dugu, eta elkarrekin lan egin". Hortaz, gogoeta gidatua euskal kulturaren transmisioari, sormenari eta eskaintzari buruz hitz egingo dute eta, ondoren, euskara teknikariek beste topaketa bat egingo dute.

Azpeitiko Dinamo sortu berri duten sormenerako espazioa ezagutuko dute, Aiaraldeko eki-

men faktoriaren esperientziari buruz hitz egingo dute eta Berako alkateak haien esperientzia kontatuko dute. Aiaraldean kulturatik haratago joaten den espazioa sortu dutela azaldu du Suarezek, normalean "periferian" dauden gaiak lantzen dituztela, feminismoa eta komunikazioa, kasu. Beraren kasua "eredugarria" dela esan du Suarezek. Jardunaldietan ere Miren Artetxek Iparraldeko bertso eskolen esperientzia "positiboa" azalduko du. "Alde positibotik ikusteko".

Ikastetxetik lortia kultur gunearen oholtzara

Andra Mari ikastolako eta Altsasu institutuko 100 bat ikaslek 'Esclavos felices' ikuskizuna eskaini zuten

SAKANA

Oholtzara salto arte eszenikoak gazteen artean zabaltzeko helburu duen programaren barruan *Esclavos felices* ikuskizuna eskaini zuten Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako DBH 4.

eta Altsasu BHIko DBHko 2. mailako ikasleek lortia kultur gunean. Guztira, 100 bat ikaslek parte hartu zuten astean zehar ikastetxeetan egin zuten dantza erresidentzian eta ikuskizunean. Bigarren edizioa izan da.

Dantza konpainiako dantzariak irakasleak izan dira, eta ikasleek bost egunetan ikuskizun bat sortu dute. Ostiralean izan zuten suzko proba, oholtzara salto egin behar izan zuten eta dantzaren bidez "esklabo alaien" inguruan hausnartutakoa erakutsi. Talde bakoitzak koreografia bat egin zuen, eta "teloneroa" dantza konpainia izan zen. Dantzari profesionalek bi koreografia egin zituzten. Dantza ez ezik beste hainbat balore ikasi zituzten ikasleek aurreko astean.



Dantza konpainiaren dantzariak ikuskizunean. IORTIA KULTUR GUNEA



'El funeral' antzezlanaren izan da gaur Irurtzongo kultur etxean. CHE Y MOCHE

Goi mailako antzerki emanaldiak, han eta hemen

Irurtuznen, gaur, 'El funeral' antzezlanaren izan da; Altsasun, bihar, 'Dublineses' antzezlanaren

IRURTZUN / ALTSASU

Gizakiak heriotzarekiko duen harremanetik sortutako eztabaidak dira, orokorrean, *El funeral* eta *Dublineses* gaur eta bihar, Irurtuznen eta Altsasun, hurrenez hurren, izanen diren antzezlanen gaia. Che y Moche konpainiak ikusle eta kritikaren begirunea eta miresmena lortu du *El funeral* antzezlanarekin eta gaur, 22:30ean, Irurtzongo kultur etxera iritsiko da. Sarrerek 6 euroko prezioa dute eta ikuskizunaren aurretik eros daitezke. *Dublineses* antzezlanaren atzean Ados teatroa dago eta bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean egonen da. Aurretiko sarrerek 12 euroko prezioa dute eta egunean bertan 15 euro.

Bost antzezle eta musikari dira *El funeral* antzezlanaren protagonistak. Doinu gehienak Europa ekialdean sortuak dira.

Maisuak dira beraien instrumentuekin eta oso modu trebean "gag" eroak uztartzen dituzte. Kontsumismoaren arauak buruzko satira bat da, eta tradizioak, ohiturak, familia eta abar berreskuratzeko mezua zabaltzen du ere antzezlanak.

Guztiok jarraitzen ditugun kontsumismoaren arauak buruzko satira baten aurrean gaude. Hausnarketa guztiz lagungarria gure bizitzako arlo mamitsu eta funtsezkoenak berreskuratzeko: tradizioak, ohiturak, familia... Eta musikak sortzen dituen emozioen bitartez, bidaiaren miresgarria egingo dugu.

Dublineses James Joyce antzerkigilearen lanaren adaptazioa da. Bizitzaren iragankortasuna, gaztaroko maitasun galdia eta nostalgiak zein iruzurrak usteldutako bizitzak lantzen ditulanak. Euskal eszenako zortzi handik osatzen dute aktore zerrenda.



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

Hirugarren ekarpena

Gaurkoan proposatzen dizuedan jolasean 7 kartako ilara bat daukazue aurrean. Kartak buruz gora edo buruz behera egon daitezke.

Jolasterako garaian urrats bakoitzeko honako jarraibideak dituzu:

- Kartak eskuinetik ezkerreara aztertu behar dituzu
- Aztertzen ari zaren karta buruz behera baldin badago, buruz gora jarri eta hasi hurrengo urratsarekin
- Aztertzen ari zaren karta buruz gora baldin badago, buruz behera jarri eta hurrengo kartara mugitu

- Kartarik gabe geratzen bazara, gelditu
- Adibidez,
Urratsa eman aurretik:



Urratsa eman ondoren:



Jarraibide horiei men eginez, zenbat urrats eman beharko dituzu 7 karta buruz behera egotetik buruz gora egotera pasa daitezen?

Erantzun posibleak:
A) 10 urrats edo gutxiago.
B) 10 baino gehiago, baina gehienez 100 urrats.
C) 100 baino gehiago, baina gehienez 1000 urrats.
D) 1000 urrats baino gehiago.
E) Ez da posible jarraibide horiekin 7 kartak buruz gora jartzea.

<https://guaixe.eus/komunitatea/EdurneLarraza> helbidean aurkituko duzue ekarpen hau eta bertan zuen erantzunak jartzeko aukera izango duzue. Nola lortu duzue erantzuna? Gainera, astebate barru nire azalpenak emango dizkizuet. (www.bebras.uk webgunetik ekarria)

Arte eszeniko garaikidearen erakustaldia gaur lortian

'Uholdeak, mahaira' programaren azken ekimena izan da gaur, 19:30ean, Maia Villoten esku

ALTSASU

Arte garaikidea Nafarroatik zabaltzeko eta sustatzeko helburuarekin antolatutako Uharteko Zentroak *Uholdeak, mahaira* programa. Artista garaikide nafarren artelanaren erakusketa ez ezik, programak hainbat jardueraren gehiago uztartzen ditu, arte garaikidearen begirada osoa eskaintzeko. Maria Ozcoidi erakusketaren komisarioak azaldu zuenez, erakusketa batean lanak ikusten dira, baina hor geratzen dira. Hortaz, *Uholdeak, mahaira* programa honekin



Leire Urbeltzen tailerra. IORTIA

"zerbait" gehiago egin behar zuten.

Programaren hirugarren geltokia izan da, eta 'Uholdeak, mahaira' Amaia Molinet, Femin Jimenez Landa, Greta Alfaro, Leire Urbeltz eta Fermin Diez de Ulzurrun artisten erakusketa mustu zuten Iortia kultur gunean. Otsailaren 2ra arte irekita egongo da. Programaren barruan, komisarioak bisita gidatua egin zuen, aurreko larunbatean Leire Urbeltz ilustratzailearen ikastaroa izan zen, eta, programaren ekimenekin amaitzeko, Maia Villoten *Natura morta* arte eszenikoaren erakustaldia ikusteko aukera izan da. 19:30ean izan da, Iortia kultur gunean. Ozcoidik azaldu bezala, Villotek ez du lanik erakusketan, baina haren lana erakustaldi batean erakusten du.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubetzia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 - Fax 948 467 600
www.construccionesalzate.com

BILTOKI
TABERNA • JINETXEN

Astelehena ostirala
Eguneko menua 10€

Asteburuak
Menu berezia 25€

948 467 876 - Altsasu

kaxeta
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak
liburuak
jostailuak
opariak
eskulanak

Inprimagailuendako
kartutxoak

948 460 477
Larrañeta 19, Etxarri Aranatz

Autoen seguruak

MAPFRE
La aseguradora oficial de confianza

JOSE ANTONIO
IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN



Ainhoa Juaniz clowna 'Tren geltokia' ikuskizunean. ZIRIKA ZIRKUS

Erkuden Ruiz Barroso IRAÑETA

Adin nagusitasuna beteko du aurten Zirika Zirkus konpainiak, edo hala dela uste du Ainhoa Juaniz taldeko kideak. Urte hauean hamaika ikuskizun egin dituzte. Gainera, kideen "izaeragatik" kontakizunek mezu sozialak dituzte. Etzi, igandea, 17:00etan, Olaztiko kultur etxean *Tren geltokia* egingen dute. Clown ikuskizun bada ere, "antzerkiarena" dela azaldu du Juanizek.

Nola sortu zen Zirika Zirkus?

Madriren zirkua ikasten ari ginen eta momentu batean Luis Lainez *Bolik* eta biok pentsatu genuen zerbait sortu behar genuela. Saiotxoak sortzen hasi ginen. Eta horrela hasi ginen, pixkanaka. Azkenean, ikuskizun bat sortzeko nahiko saio izan genituen. Ikuskizuna Txantrea-ko Auzotegin mustutzeko proposatu genuen. Ez genekien zertarako estreinatu behar genuen, baina nik nire auzoan egin nahi nuen. Bete zen. Handik beste hiru emanaldi atera ziren, eta horietatik beste hainbat. Etxera bueltatzeko ordua iritsi zela pentsatu nuen. Esaten dugun bezala, bakoitzak bere pailazo maleta ekarri zuen.

Ospea izatea lortu duzue.

Egia esan, hasieratik bizi gara honetaz. Hasieran klase gehiago eman behar izan nituen eta lan hau beti da ezegonkorra. Ez gara oso merchandising edo ospeza-leak. Baina zorionez toki bat egitea lortu dugu. Ez dut ezer ospearen aurka, baina ez da nire

"Pailazo maleta ekarri genuen"

AINHOA JUANIZ CLOWN

Zirika Zirkus konpainiaren 'Tren geltokia' ikuskizuna izanen da igandean, 17:00etan, Olaztiko kultur etxean. Hiru lagunek protagonizatzen dute antzezlan

helburua. Gainera, pozik gaude dena gure diruarekin egin dugulako. Lortutako fruituekin. Ez dugu sekula dirulaguntzarik eskatu. Noizbait egin beharko bagenu momentu horretan zerbait handiagoa sortu nahi dugulako edo egin nahi duguna aurrera ateratzeko behar dugulako, egingo genuke. Ez gara sekula aberastuko eta zailagoa izango dugu, baina bidea hartu genuen.

Zirika Zirkusen ikuskizunetan mezu sozialak garrantzitsuak dira, ez? Saiatzen gara mezuak subliminalki ematen. Ez dugu abisatzen,

"LEHENENGO EGUNETIK ESATEN DIZUTE: EZ EGIN BARREGARRIARENA, ATERA BEHAR DA"

baina jendeak ikusten du. Gai pila bat lantzen ditugu: berdintasuna, ez da ez, etorkinak, arrazakeria... Guk inprobisazioaren bidez gauza asko sortzen ditugu, eta mezu pila bat gehitzen doaz. Ikuskizuna egiten ari garen bitartean sortzen dira.

CLOWN

Nola erabaki zenuen clown izatea? Kasualitatez. Berez oso pertsona lotsatia naiz. Inork ez du sinisten. Madrildik itzultzeko aste bat geratzen zenean, lagun batek zirku eskolan izena eman zidala esan zidan. Alcorcongo zirku eskolara joaten nintzen. Denetara apuntatu ninduela esan zidan. Clowna lokatzara bezala botatzea da. Eta terapia bezala hartu nuen. Betidanik izateko moduagatik, egiten ditudan gauzagatik, dantza egitean edo hitz egitean, grazia egiten diot jendeari. Baina

gaizki hartzen nuen. Izan ere, nitaz barre egiten zuten. Baina bertan ikasi nuen altxor bat zela. Hor konturatu nintzen pailazo bat nintzela. Azkenean, zuk erabaki behar duzu noiz izan barregarri. Lehenengo egunetik esaten dizute: ez egin barregarriarena, horrek ez du barrerik sortzen. Beraz, nik pentsatu nuen xelebrearena egin gabe barregurea sortzen banuen, hori zela nire tokia. Irakasleari nire lana gustatu zitzaion eta hiru klase kiderekin batera aktore training batean parte hartzeko esan zigun. Kristoren oparia izan zen.

"CLOWNA METODO BAT DA, ANTZERKI ZIRKUTIK DATORREN AKTORE TEKNIKA BAT"

Barruan zeneukan.

Ez dakit. Ondoren, zirku klaseko bigarren astean emakume batek galdetu zidan ea zankoetan ibiltzen nekien eta baietz esan nion. Antzerki zirku konpainia bat zuen eta larunbatean hasiko nintzela esan zidan. Nahiko meteorikoa izan zen. Ezin nuen ezetz esan. Beraz, *La fabrica de sueños* konpainian lanean hasi nintzen. TVEko *La bola de cristal* saioan *El duende del globo* saioan lan egiten zuen konpainiak. Bere ikuskizunak oso fantastikoak ziren. Nik flipatzen nuen. Oso harreman ona geneukan eta berari nola aritzen nintzen gustatzen zitzaion. Gainera, konpainian erori nintzela esaten zidaten. Izan ere, beste konpainia batzuetan beraien artean inbidiak eta lehiakortasuna zegoen, eta honetan kontrakoa zen.

Ikastaroak egitea beharrezkoa dela uste duzu?

Clownak entrenatu behar du. Egia da egin egiten zarela antzeztzen, baina gutxieneko batzuk jakin behar dituzu. Badira teknika batzuk, gauza guztietan bezala. Aktore teknikak dira, eta arau batzuk ere badira. Horrela da eta horrela izan behar da. Huts egin dezakezu, baina jakinda araua horrela dela. Ez duzu aurkituko pailazo bat sudurra ongi jartzen berea ez balitz bezala. Sudurra sakratua da. Badago jende asko ez duela ezer egin; bakoitzak jakingo du, nik ez dut inor epaitzen. Baina clowna naiz esateko, gutxieneko bat behar da. Pertsona baten feed back-a behar duzu hortik bai edo hortik ez esaten dizuna. Gainera, irakasle desberdinen iritzia izatea garrantzitsua dela uste dut.

Zer da clown izatea?

Clown antzerki teknika bat da. Emozioak daude jokoan. Ez du zertan barre egin behar, badira clownak negar egiten dutenak ere. Metodo bat da. Onerako edo txarrerako. Askotan galdetzen digute zein den clown eta pailazoaren arteko desberdintasuna. Guk antzerki zirkua egiten dugu. Pailazoak saioak egiten ditu. Lagun batek esan zidan, clowna ikasketak dituen pailazo bat dela. Ez da horrela, baina azaltzeko balio du. Zirku eskola batean ikasi dugu, baina gure metodoa antzerkitik dator.

Zer da hoberena?

Paradisu bat bilatu dut inprobisazioaren munduan.

"Australiako esperientzia bikaina ari da izaten"

Asier Arregi Alegria lakuntzarrak administrazioko erdi mailako ikasketak egin zituen eta ondoren goi mailako ziklo bat, marketing eta publizitatekoa. Australiara jo zuen eta egun Futbol Club Barcelonak Brisbanen duen futbol eskolako entrenatzailea da

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

1 Zergatik Australiara?

Orain dela 3 urte nire koadri-lako mutil bat, Alejandro, Kanadara joan zen ikastera. Nik ere atzerrira atera nahi nuen. Txikitik Australiari buruzko lan bat egin nuen eta beti esaten nuen noizbait hura bisitatu beharko nuela. Eta lan egiten aurreztutako diruarekin, irailaren 2tik nago Brisbanen. Ekialdeko Kosta begiratuta, erdian dago. Kostako hiri bat dugu, Gold Coast, ordu batera. Han ere sakandar bat dago, Nagore Claver. 9 ordu gehiagoko aldea dugu Sakanarekin.

2 Ikasten ari zara edo lanean?

Ingelesa ikasten ari naiz eta Futbol Club Barcelonako Brisbaneko futbol akademian ari naiz lanean, entrenatzaile, baina aurretik lan pila bat egin izan ditut: granja batean limoiak hartzen, sukalde batean platerak garbitzen, publizitatea banatzen...

3 Sakandar bat Futbol Club Barcelonako Brisbaneko akademiako entrenatzaile... bitxia, ez?

Kasualitate hutsa izan zen. Nirekin ingelesa ikasten zuen ikas-kide batek esan zidan Futbol



Asier Arregi Alegria Brisbanen, Lakuntzako zapiarekin. UTZITAKOIA

Club Barcelonako Brisbaneko akademian entrenatzaile izateko probak egin behar zituela. Lakuntzako Lagun Artean eta Altsasun futbol entrenatzaile izan naiz, titulua badut, eta ni ere animatu nintzen. Esan zidaten

orduan ez zegoela lanposturik, baina nik esan nien boluntario moduan hasi nahi nuela, gustuko nuelako. Australian oso ondo baloratua dago boluntario izatea, boluntario asko daude. Eta horrela hasi nintzen, baina gero

lanpostu bat sortu zen eta orain lanean nago. 6 eta 7 urteko haurrak entrenatzen ditut.

4 Non bizi zara?

Etxe konpartitu batean, Kolonbiako neska batekin eta Estatu espainiarreko beste neska eta mutil batekin. Oso arraroa da Australiakoren bat kanpotarrekin bizitzea.

5 Australiako bizimodua oso ezberdina da? Zer du ona?

Soldatak ez dira hilabetean ordaintzen, astean baizik. Badute kanpoan afaltzeko ohitura, parranda egitekoa... Hemen lan ordu gutxiago eginda bizitzeko ematen du; han ez. Ingelesa ikasteko primerakoa da, eta mundu guztiko jendea ezagutzen duzu. Toki ikusgarriak daude ikusteko, eta atzerrira joateak ematen dizuna gehitu behar diozu, zuk pertsonalki askoz gehiago baloratzen dituzula gauzak: beste pertsonetikiko asko aldatzen duzu zure ikuspuntua, dirua gastatzeko orduan eta alde guztietatik...

6 Eta alde txarrak ba al du?

Janaria. Olio oso garestia da eta janari azkarra asko kontsumitzen da. Etxetik urrun, familiarik eta lagunik gabe egotea kosta egiten da. Amona hil zen, eta oso gaizki pasatu nuen. Baina une txar horietatik ere puntu on bat ateratzen duzu, aurrera egiten baduzu, asko irabazten duzu.

7 Australiako sute izugarrien irudiak iritsi dira.

Sute izugarriak daude, baina iparralderago daude, Sydney eta Melbourne artean. Gure hirira ez dira oraindik iritsi. Toki publiko askotan informazioa dago,

boluntario bezala suteak itzaltzera joateko izena emateko.

8 Horrenbesteko beroa egiten al du Australian?

Izugarria, gaur 34 gradu izan ditugu baina sentsazio termikoa 41 gradukoa da. Dutxa bat hartzen duzu eta ateratakoan jada izerditan zaude. Ez du aireak jotzen eta bero honi aurre egitea oso zaila da. Gabonak bitxiak izan ziren. Pinuak, apaindurak eta Santa Claus, baina sekulako beroarekin. Arraroa egiten da.

9 Lakuntzan Sansastinak ospatu ziren. Gogoratu al zinen?

Jakina, lakuntzar batek ezin ditu sansastinak ahaztu! Gertu egoteko Lakuntzako zapi bat ekarri nuen Australiara, eta ilbeltzaren 19an zapiarekin lo egin nuen (kar, kar...). Beti izaten da herri mina, halako uneetan gehiago.

10 Australiako esperientzia ona izaten ari da?

Kristoren esperientzia da herri-tik kanpo ateratzea, beste kultura edo herrialde bat ezagutzea, eta bertan bizitzea eta lan egitea. Aholkua: aukera baduzu zoaz, pentsatu gabe! Izango dituzu urteak zure herrian egoteko.

11 Eta noiz itzuliko zara?

Maiatzean bukatzen zait bisatua eta Bali eta Tailandia bisitatu ondoren, sanferminetarako Sakanan egongo naiz. Entrenatzaile profesionala izateko hirugarren titulua ateratzea falta zait; titulua ateratzea ari naiz aztertzen, eta goi mailako zikloren bat egin. Edo beste hizkuntzaren bat ikastea. Eta hurrengo urtean beste herrialderen batera joatea. Zergatik ez?

